


# "BILBOKO PORTUKO ZERBITZU-GUNEA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA PUNTUALA (GETXOKO KIROL-PORTUA)" HASIERAN ONETSI ETA GEROKO ENTZUNALDI-IZAPIDEAN AURKEZTU ZIREN ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO TXOSTENA

2026eko Urtarrila

Carmen Lourdes Martínez Bilbao (1 de 1)
Jefa de Departamento de Asesoría Jurídica
Fecha Firma: 26/01/2026
HASH: 2f39e6f3bdfe9214461af765f1eb4e5b

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 1 de 53

# AURKIBIDEA


1.- TXOSTENAREN AURREKARIAK ETA XEDEA

2.- ALEGAZIOEN ZERRENDA

3 BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAK ALEGAZIOEN INGURUAN IDATZITAKO TXOSTENA

4.- ONDORIOAK ETA ESKAERA

5.- I. ERANSKINA: AGIRIAREN IZAPIDEARI BURUZKO OHARRAK

6.- II. ERANSKINA: ETORKIZUNEKO HOTELAREN ALTUERA ETA INGURUKO ERAIKIN ESANGURATSUENEN ALTUERAK KONPARATZEKO PLANOA

7.- III. ERANSKINA: ESTATUKO ABOKATUTZA NAGUSIAK EGINDAKO TXOSTENA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BILBOKO PORTUAREN ZERBITZU-GUNEA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA PUNTUALA IZAPIDETZEKO DUEN ESKUMENARI BURUZ



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 2 de 53

**“BILBOKO PORTUKO ZERBITZU-GUNEA ANTOLATZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA PUNTUALA (GETXOKO KIROL-PORTUA)” HASIERAN ONETSI ETA GEROKO ENTZUNALDI-IZAPIDEAN AURKEZTU ZIREN ALEGAZIOEI ERANTZUTEKO TXOSTENA**

## 1.- AURREKARIAK ETA TXOSTENAREN XEDEA: ESTATUAREN ESKUMENEKOA DEN ETA TXOSTEN HONETAN HIZPIDE DUGUN UDALAZ GAINDIKO PORTUKO SISTEMA OROKORRAREN PLAN BEREZIA ONESTEA

Gaur egun indarrean dagoen Bilboko Portuko Zerbitzu-gunea Antolatzeko Plan Berezia (aurrerantzean, BPZAPB) 1998ko uztailean onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, eta 2000n eta 2007an planaren aldaketa puntualak onetsi ziren.

Planaren arauketa sektore-araudi batean jasota dago, zehazki, Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko testu bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintza Errege Dekretuan. “Portuen hirigintza-antolamendua” izenburua duen 56. artikuluak hau xedatzen du:

*“1. Administrazio eskumendunek portu-espazioaren inguruan gauzatu beharreko koordinazioa antolatzeko plan orokorrek eta hirigintza-antolamenduko gainerako tresna orokorrek portuko sistema orokor gisa kalifikatu beharko dituzte* ***estatuko portuen zerbitzu-guneak eta itsasoko seinalizazio-zerbitzuen eraginpeko portuko jabari publikoa****. Gainera, ezingo dute portuak ustiatzeko eta itsasoko seinaleak jartzeko eskumenak egikaritzea oztopatzen edo zailtzen duten zehaztapenik jaso. Hala, Estatuko Portuek aurretik txosten loteslea egin beharko dute, eta hori baino lehen Itsasargien Batzordeak irizpena eman beharko du aurretik aipatu diren espazioetatik kanpo egiten diren jarduketek itsasoko seinale-zerbitzuan eragin dezaketenean, hau da, inguruan itsas nabigazioan laguntzeko instalazioren bat dagoenean.*

*2.* ***Portuko sistema orokor hori plan berezi edo tresna baliokide*** *baten bidez garatuko da eta honela egituratuko da:*

*a) Portuko Agintaritzak egingo du plan berezi hori.*

*Portu bateko zerbitzu-gunea antolatuko duen plan berezia edo tresna baliokidea egin aurretik, portu horretako Portuko Espazio eta Erabileren Mugaketa onartuz mugatu beharko da zerbitzu-gunea, eta plan horretako zehaztapenak ezin izango dira hedatu horrela mugatutako zerbitzu-gunetik harago.*

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 3 de 53

*b) Hirigintzako eta lurralde-antolamenduko legerian aurreikusitakoaren arabera izapidetu eta onetsiko du <u>hirigintza-arloan eskumena duen administrazioak.</u>*

*c) Izapideak amaitutakoan, eta plan berezi hori behin betiko onetsi aurretik, hirigintza-arloan eskumena duen administrazioak, behin-behineko onespenetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean, plan bereziaren edukia helaraziko dio Portuko Agintaritzari, hark, hilabeteko epean, bere eskumeneko alderdiei buruzko iritzia eman dezan.*

*Portuko Agintaritzak plan bereziaren edukia jaso ondoren, Estatuko Portuei igorriko die, egoki iritzitako oharrak eta iradokizunak egin ditzaten.*

*Aldaketa egiten ez bada edo Portuko Agintaritzak ezezko iritzia ematen badu hirigintza-arloan eskumena duen administrazioaren proposamenari buruz, Portuko Agintaritzak ezin izango du behin betiko onetsi plan berezia, eta beharrezko kontsultak egin beharko zaizkio Portuko Agintaritzari, horren edukiari buruzko berariazko akordioa lortzeko.*

*Desadostasunak bere horretan jarraitzen badu, sei hilabeteko epean, Portuko Agintaritzak ezezko erabakia eman duenetik zenbatzen hasita, Ministroen Kontseiluari dagokio txosten loteslea egitea, aldez aurretik Estatuko Portuek aipatutako txostena eman eta gero.*

*Apartatu honetan aipatzen diren plan berezien behin betiko onespena Portuko Agintaritzari jakinarazi beharko zaio, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako baldintzak betez.*

*3. Plan bereziaren zehaztapenen artean jaso beharko dira portuko espazioa eraginkor ustiatzen dela bermatzeko neurriak eta aurreikuspenak, haren garapena eta lurreko garraio-sistema orokorrekin duen konexioa”.*

Aipatutako plan berezia onetsi zenetik gaur egunera arte portuen plangintzak eta antolamenduak bilakaera handia izan dute espazioan eta araudian, eta indarreko portu-legerian ezarritako figuren bidez gauzatu da hori guztia; hasieran, Portuko Erabilera eta Espazioen Plana (PEEP) izan zen eta gaur egun Portuko Espazio eta Erabileren Mugaketa (PEEM) da; azken agiri horrek portuko zerbitzu-gunea mugatzen du eta espazioei erabilerak esleitzen dizkie. Azken aldaketa garrantzitsua Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioaren maiatzaren 10eko TRM 509/2024 Aginduaren bidez onetsi zen.

Horrenbestez, portuko zerbitzu-gunea antolatzeko plan berezia hirigintza-tresna bat da eta portuko sektore-lege batean xedatuta dago udalaz gaindiko portuko sistema orokor bat garatzeko. Hala, bere izaera, garrantzia, kudeaketa bateratuaren printzipioa eta baterako zerbitzu-prestazioa direla-eta udalerri bakar baten eremutik harago doa. Berezitasun hori islatu egiten da hirigintza-antolamendurako estatuko eskumenekoa den eremu baten sektore-plana eratzen duen agiri baten izapidetzearen arauketa berezian. Hori idaztea Bilboko Portuko Agintaritzari dagokio sustatzailea den heinean, eta berau onestearen helburua da ziurtatzea plangintza koordinatua eta efizientea dela Bizkaiko egituran ezinbestekoa den azpiegitura baterako.



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 4 de 53

Auzitegi Gorenak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko 550/2008 auzi-errekurtsoaren aurkako 6109/2010 kasazio-errekurtsoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko 840/2009 auzi-errekurtsoaren kontra egin zen 3906/2011 kasazio-errekurtsoan berariaz xedatu zuen zuzenbidearen aurkakoa dela plan berezia edo planaren aldaketak udal bakoitzak partzialki izapidetzea Portuko Agintaritzak mugatutako esparru fisikoaren barnean dagoen lurralde propioa kontuan hartuta, eta aurrerago azalduko dugun moduan, irizpide hori oinarritzen dute Konstituzio Auzitegiaren erabakiek; halaber, Justiziako Auzitegi Gorenen bestelako ebazpenetan ere jaso dira, bereziki, hauetan: Kantabriako Justizia Auzitegi Gorenaren azaroaren 18ko 589/2013 Epaia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren urriaren 27ko 473/2025 Epaia.

Aurrekoa kontuan hartuta, indarrean dagoen portuko zerbitzu-gunea antolatzeko plan bereziaren onespena eta aldaketa puntualak Bizkaiko Foru Aldundiak onetsi zituen aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko araudia betez. Hala, ikuspegi bakarra eta orokorra txertatu zuen, eta, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuarekin bat etorriz, hori ezin izango litzateke egin udalerri bakoitzak bereizita txertatuko balitu interes orokorrekoa den Bilboko Portuari buruzko irizpide ezberdinak. Aurrekoaz gain, ingurumen-ebaluazioaren prozedura dekretu horretan eratzen da administrazio-prozedura instrumental gisa eta planak onesteko sektoreko prozedurarekiko inkardinatuta dago. Horrenbestez, hirigintza-plana onesteko prozedura abiapuntutzat hartuta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduran txertatzen da. Integrazio hori hirigintza-arauetan eta BPAZPBren aldaketaren dokumentazioan bete da, ondoren adieraziko den moduan.

2024ko abuztuaren 1ean Bilboko Portuko Agintaritzak sustatzaile gisa Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailean eskaera bat aurkeztu zuen izapide bat hasteko. Izapide hori Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko testu bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintza Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatuta dago eta asmoa zen Bilboko Portuko zerbitzu-gunea antolatzeko plan bereziaren aldaketa puntuala (Getxoko kirol-portua) onestea.

Irailaren 8ko 525/2024 Foru Aginduaren bidez espedientea hasiera batean onetsi aurreko prozesua martxan jarri zen eta sektore-administrazioei nahitaezko txostenak eskatu zitzaizkien.

Aldi berean, ingurumen-izapidea egin baino lehen, ingurumen-organoak urtarrilaren 20ko 995/2025 Foru Agindua eman zuen. Horren bitartez erabaki zen izapidetzen ari zen aipatutako aldaketaren ingurumen-txosten estrategikoa egitea.

Nahitaezko txosten horietan, Estatuko Abokatutza Nagusiak portuko zerbitzu-guneko kostaldeko zortasunen irismenari buruz egin zuen txostenean eta ingurumen-txosten estrategikoan oinarrituta, Bilboko Portuko Agintaritzak agiri bat idatzi zuen Bilboko Portuko zerbitzu-gunea antolatzeko plan bereziaren aldaketa puntuala (Getxoko kirol-portua) (BPAZPB) hasiera batean onesteko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak 2025eko uztailaren 10eko erabakiaren bitartez hasieran onetsi zuen Bilboko Portuko zerbitzu-gunea antolatzeko plan bereziaren aldaketa puntuala (Getxoko kirol-portua). Hala, erabaki zuen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko zela (175. BAO, 2025eko



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 5 de 53

irailaren 15ekoa), baita ere lurralde historikoan garrantzitsuenak diren bi egunkaritan gutxienez. Hala, espedientea jendaurrean jarri zen hogei egun baliodunetan azken argitalpenetik aurrera zenbatzen hasita.

Entzunaldi-epean Bizkaiko Foru Aldundiaren sail horretan alegazioak jaso zituzten (aurrerago zerrenda batean jasoko direnak), eta edukia Bilboko Portuko Agintaritzari helarazi zioten 2025eko azaroaren 26an (2025-E-RC-1150 sarrera-erregistroarekin), agintaritzak egokitzat jotzen dituen oharrak egin ditzan agiria behin-behinean onesteko izapidea egin baino lehen.

Txosten hau Bilboko Portuko Agintaritzak idatzi du agiri honen sustatzaile moduan. Bizkaiko Foru Aldundiaren Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari gure gogoetak helaraztea da helburua, aldaketa hasieran onetsi osteko informazio publikoko aldian jasotako alegazioei dagokienez. Horrela, ohar hauek kontuan hartu ahal izango dira sail horrek erabakiak hartzen dituenean agiria izapidetzeko eta onesteko lanetan aurrera egiteko.

Bizkaiko Estatuko Abokatutzari txosten juridikoa eskatu zaio organo arduradunak portuko plan bereziaren aldaketa hasieran onesteko duen eskumenaren inguruan. Gai hori alegazioak izapidetzean landu zen, eta agiri honi erantzun informatua gehitu zaio. Hala, Konstituzio Auzitegiaren berariazko erabakietan oinarrituta dauden alegazioei erantzun zaie, eta printzipio oinarrizkoak eta baketsuak eratzen dituzte. Aurreko horiek oinarritzen dituzte maila baxuagoko organo judizialen ebazpenak, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Kantabriako Justizia Auzitegi Nagusienak, aurretik aipatu den bezala. III. eranskin gisa atxiki da Estatuko Abokatutza Nagusiak horren inguruan idatzitako txostena.

## 2.- ALEGAZIOEN ZERRENDA

Ondorengo zerrendan jaso dira txosten honen hizpide diren alegazio-idazkiak. Guztiak ere Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Portuko Agintaritzari bidalitakoak dira 2025eko azaroaren 26an (2025-E-RC-1150 sarrera-erregistroarekin).

| ALEGATZAILEA | | AURKEZPEN-DATA |
|---|---|---|
| 1 | GETXOKO UDALA | 2025-10-06 |
| 2 | OLAIZ ARTETXE DE LA PEÑA ANDREA | 2025-10-07 |
| 3 | EDUARDO ANDRADE AURRECOECHEA JAUNA, GETXOKO ALDERDI POPULARRAREN bozeramaile gisa | 2025-10-08 |

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 6 de 53

| | | |
|---|---|---|
| 4 | V.S.L.S.L.P. (ANTONIO SANCHO VILLANOVA JAUNAK ordezkatuta) | 2025-10-10 |
| 5 | MIKEL BILDOSOLA AGIRREGOMEZKORTA JAUNA, bere izenean eta GETXOKO EH BILDU UDAL-TALDEAREN zinegotzi bozeramaile gisa | 2025-10-10<br>2025-10-13 |
| 6 | IBON RODRIGUEZ LARRINAGA JAUNA, bere izenean eta El Abra Getxo Kirol Portuaren kontseilari gisa | 2025-10-10<br>2025-10-13 |
| 7 | GETXOKO PSE-EE (PSOE) SOZIALISTEN UDAL-TALDEA (CARMEN DÍAZ PÉREZ andreak ordezkatuta) | 2025-10-13 |
| 8 | IGNACIO BASAÑEZ ALFONSO JAUNA, ASOCIACIÓN DE AMARRISTAS Y COMERCIANTES GETXO KIROL-PORTUA GKP elkartearen presidente gisa (Pilar Ochoa Gomez andreak ordezkatuta) | 2025-10-13 |

## 3.- BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAK ALEGAZIOEN INGURUAN IDATZITAKO TXOSTENA

Hauek dira alegazio bakoitzaren eduki eta arrazoiketa nagusiak. Aztertu egin dira eta arrazoitutako erantzun indibidualizatua eman zaio bakoitzari:

| **1. ALEGAZIOA** | |
|---|---|
| **ALEGATZAILEA** | GETXOKO UDALA |
| **ALEGAZIOAREN LABURPENA** | |

Getxoko Udalak BPAZPBren aldaketan jasotako portua-hiria interakzio-gunerako eraikuntza-baldintzen inguruan alegatu zuen gehieneko okupazioaren (28.968,12 $m^2$) eta gehieneko altueraren (26 m) azalera-parametroen konbinazioak (gehienekoetan) gehiegizko ikusizko inpaktua sor dezakeela inguruan. Izan ere, nolabaiteko pantaila-efektua sortzen da (pantalanetara begira dagoen fatxadaren gehieneko dimentsioa 210 metrokoa da eta 150 metrokoa Ereaga hondartzara begira dagoen fatxadarena), bolumenaren altuera gehiegizkoa izan daitekeelako eta azpibolumenetan zatikatzen ez bada.

Ohar horiek aintzat hartuta, eskatzen dugu portua-hiria interakzio-guneko eraikuntza-zehaztapenek eta baldintzek altuera gutxitu dezatela eta inguruan eragin hobea bermatzen duen ikusizko integrazio bolumetrikoaren baldintzak ezar daitezela.

Horretarako, proposatzen dugu hirugarren tituluko 19. artikuluaren 3. apartatuan testu hau gehitzea: Erabilera-kalifikazioko gune bakoitzerako arau bereziak, BPAZPBren aldaketa puntualekoak:



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 7 de 53

*“3. Eraikitzeko baldintzak:*

*Eraikita dauden eraikuntzak finkatzen dira.*

*Getxoko Kirol Portua ustiatzeko proiektu berrian eremua osorik birsortu nahi da.*

*Portua-hiria interakzio-gunearen barnean proposatutako hotel berriak ez du gaindituko Arriluzeko Naufragoen Etxearen goihabearen altuera.*

*Baimendutako gehieneko bolumenaren barnean arkitektura-irtenbide bat ezarriko da. Asmoa izango da inguruan integrazio bolumetrikoa betetzea. Horretarako, gutxienez 2 bolumen konfiguratuko dira eta bolumen horien fatxada bakoitzeko luzerak ezingo du 90 metro linealeko dimentsioa gainditu”.*

**ALEGAZIOARI ERANTZUTEKO TXOSTENA**

Plan bereziaren aldaketa puntualean hasiera batean hotel berrirako gehieneko altuera 26 metrotan finkatu zen eta hori ez zen izan Bilboko Portuko Agintaritzaren erabaki arbitrario bat. Izan ere, aurretiazko erakunde-adostasuna lortu zen Bilboko Portuaren *home port* jarduera sustatzeko eta Getxo udalerrian dagoen hoteletako logela-faltari erantzuna emateko. Hala, bideragarritasun teknikoko eta ekonomikoko irizpideak kontuan hartu ziren hotel bat ezartzeko. Hotelak kalitate-estandarrak eta ingururako zerbitzu egokiak biltzea da xedea eta etorkizuneko eraikuntza Punta Begoñako galerien azpitik geratuko da.

Getxoko Udalak hasierako iritzia birplanteatu du eta etorkizuneko hotelaren altuera gutxitzea nahi du, ikusirik erakundeak, bizilagunak eta erabiltzaileak ez daudela ados hotelak sor dezakeen paisaia-inpaktuarekin. Bereziki aipatu beharra dago ingurumen-organoak ingurumen-txosten estrategikoan ezarri zuela beharrezkoa dela etorkizuneko hotelaren altuera hasieran proposatutako 26 metroen azpitik egotea.

Hala eta guztiz ere, aipatutako irizpideak aintzat hartuta, ez da arrazoizkoa orain Getxoko Udalak etorkizuneko hotelaren altuera mugatzeko planteatu duen erreferentzia Arriluzeko Naufragoen Etxearen estalki nagusia izatea. Ezin da ulertu erreferentziatzat hartzea 1920an eraikitako eraikin baten altuera. Haren tipologia oso espezifikoa da eta orain gaitu nahi denaren oso ezberdina. Are gutxiago ulertzen da erreferentzia estalki nagusia izatea eta ez eraikinaren puntu altuenetako bat, adibidez, dorreko terraza.

Etorkizuneko hotelerako erreferentzia hori ezarriko balitz, gehieneko altuera 13 m ingurukoa izango litzateke eta gehieneko profila beheko solairua+2. Horrela, ez litzateke ekonomikoki bideragarria izango izapidetzen ari den portu-agirian sustatutako ekimena. Egoera hori ulergaitza da, hau da, eraikin berriaren altuera Tamarises hotelarena baino pixka bat txikiagoa izatea. Azken hori espazio-eremu horretan dago, gertu, Ereaga hondartzaren ondoan. 1970ean eraiki zuten eta 20 metroko gehieneko altuera du eta honako profil hau: beheko solairua+3+teilatupea.



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 8 de 53

Bilbao PORT

Era berean, etorkizuneko hotelerako gehieneko altuera hori ezartzean 16 metro baino beherago geratuko litzateke. Aurreko altuera hori Bilboko Portuko zerbitzu-gunearen antolamenduko plan bereziaren aldaketa puntualaren egungo izapide-proposamenean ezarrita dago merkataritza-portuaren erabilera-gunerako gehieneko altuera gisa egungo eraikinak aldatuz gero (Plan bereziaren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen 22. artikulua); alderdi hori ez du Getxoko Udalak ezta espedienteko beste alegatzaile batek ere zalantzan jarri ezta alegatu. Horrek esan nahi du etorkizuneko hotelaren gehieneko altuera mugatzeko proposamen horrek ez lukeela oztopatuko inguru horretan altuera handiagoko eraikinak eraiki ahal izatea.

Eraikinaren gehieneko altuerari buruz hitz egiten bukatzeko, aipatu beharra dago teknikoki ez dela arrazoizkoa eraikinaren gehieneko altuera erreferentzia erlatibo batean oinarrituta arautzea. Askoz ere logikoagoa da gehieneko altuera zehatz bat ezartzea, etorkizunean lizentziak ematen direnean interpretazio-arazoak ekidite aldera.

Etorkizuneko hotelaren inpaktu bisualari eta paisajistikoari dagokienez, azpimarratu beharra dago BPAZPBren aldaketa puntualaren 20.3 artikuluan berariaz xedatuta dagoela hau: “Eraikuntza-proiektuak paisaia-integrazioko azterketa bat izan beharko du, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babesteari, kudeatzeari eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7. artikuluan jasotakoaren arabera, proposatutako eraikin berria Getxoko Kirol Portuaren esparruan eta haren inguruko hiri-ingurunean behar bezala integratzen dela justifikatzeko”.

Gure ustez mekanismo horrek bermatu egiten du etorkizuneko eraikina zuzen integratuko dela inguruan eta pantaila arkitektonikoak edo bolumenen pilatzeak ekidingo direla. Horretarako, ez da beharrezkoa izango plan bereziaren aldaketan irizpide mugatzaile osagarririk gehitzea (horiek eraikuntza-proiektuak irtenbide onenak proposatzeko duen gaitasuna baldintzatu edo mugatu ahalko lukete). Gainera, bat dator EPMOLTBren 66. artikuluan ezarrita dagoen jabari publikoaren kudeaketa-ereduarekin.

Bukatzeko, aipatu beharra dago Getxoko Udalaren alegazioan okupazio-azalera gisa oker jaso dela *portua-hiria interakzioa* erabilera-gunearen azalera osoa (28.968,12 $m^2$) eta eremu hori arautzen duen eta aldatu nahi den artikulua 20. artikulua dela eta ez 19.a.

## BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PROPOSAMENA

Albo batera utzita BPAZPBren aldaketan hasieran proposatutako altuera erakundeen adostasunarekin ezarritakoa izatea, Bilboko Portuko Agintaritza sentikorra da espedientea izapidetu bitartean askotariko erakundeek eta partikularrek azaldutako egonezinarekiko, besteak beste, Getxoko Udalak eta ingurumen-organoak bidalitako iritziak aintzat hartuta. Horrenbestez, alegazioa partzialki onestea proposatzen dugu.

Aurkeztutako proposamena eskertzen dugu eta Getxoko Udalaren alegazioak partzialki onestea proposatzen dugu, proposamenaren funtsarekin lotuta. Zehazki, etorkizuneko hotelaren gehieneko altuera gutxitzea, baina ez dugu proposamenarekin hitzez hitz bat egiten. Udalaren alegazioak hitzez hitz aplikatuz gero, ezinezkoa izango litzateke hotel berriaren abiapuntuko premisei erantzutea (horiek bultzatu dute BPAZPBren aldaketa

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 9 de 53

puntuala egitea) eta ekonomikoki ez litzateke bideragarria izango hotela eraikitzea. Beste alde batetik, instalazioen altuera eta eraikuntza-profila beste hotelarenak baino txikiagoak izango lirateke; azken hotel hori eremu horretan martxan dago 70eko hamarkadaz geroztik.

Aurreko guztiarekin bat etorriz, proposatzen dugu hotel berrirako gehieneko altuera espezifikoa ezabatzea eta 16 metroko gehieneko altuera betetzea. Aurreko hori orokorrean aurreikusita zegoen merkataritza-portuaren erabilera duen gunerako, eta alderdi hori ez du alegatzaile batek ere zalantzan jarri ezta alegatu, eta altuera hori Getxoko Kirol Portuko gainerako erabilera-guneetara zabaltzea proposatzen dugu, portua-hiria interakzio-gunea barne, txosten honetako “Ondorioak” 4. atalean jasota dagoen bezala. Proposamen horrek ahalbidetzen du alegatzaile ezberdinen iritziak kontziliatzea eta eraikinaren inpaktu bisuala murrizteaz gain, hotel-ezarpen posiblearen gutxieneko bideragarritasun ekonomikoa bermatzea. Irudien bitartez ikuste aldera, txosten honetako II. eranskineko konparazio-planoan marraztu dira etorkizuneko hotelaren gehieneko altuera eta inguruko eraikin garrantzitsuenena.

Ez dugu planteatzen etorkizuneko eraikinerako baldintza osagarririk ezartzea. Izan ere, uste dugu hasieran proposatutako altuera gutxituz, eta eraikuntza-proiektuak paisaia-integrazioko azterlana nahitaez izan behar duenez, horrek behar beste bermatzen duela eraikinaren integrazio harmonikoa.

| **2. ALEGAZIOA** | |
|---|---|
| **ALEGATZAILEA** | OLAIZ ARTETXE DE LA PEÑA ANDREA |
| **ALEGAZIOAREN LABURPENA** | |
| Olaiz Artetxe de la Peña andreak Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiak 2024ko martxoaren 24an egindako txostena bidali diezaiotela nahi du. Txosten hori Bizkaiko Foru Aldundiak administrazio publikoei egindako kontsulta-izapidean egin zen BPAZPBren aldaketa puntual hau hasieran onetsi baino lehenago. | |
| **ALEGAZIOARI ERANTZUTEKO TXOSTENA** | |
| Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren txosten horri buruz aipatu beharra dago berau interpretatzeko oinarria Bizkaiko Estatuaren Abokatutzak 2025eko maiatzaren 28an egin zuen txostena dela. Azken hori Estatuko Abokatutza Nagusiaren Kontsultarako Zuzendaritza Nagusiak berretsi zuen eta BPAZPBren aldaketa puntualaren memoriaren II. eranskinean jasota dago.<br><br>Estatuko Abokatutza Nagusiaren txostenaren ondorioak honako hauek dira:<br><br>1.- Indarrean dagoen Kostaldeei buruzko Legean aurreikusitako kostaldeko zortasunak ezin zaizkio aplikatu Getxoko Kirol Portuaren eremuari, Bilboko Portuko PEEMn portua-hiria interakzioa erabilerarako portu-eremu mugatuak dauden ala ez albo batera utzita. | |



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 10 de 53

2.- Aipatutako Kostaldeei buruzko Erregelamenduaren 227. artikuluak eskatzen duen zortasunen irudikapen grafikoa zortasun horiek aplikagarriak diren lekuetan bakarrik jaso ahal izango da planoan, eta beraz, ez dira jaso beharko halakorik ez dagoen lekuetan, portuko jabari publikoaren barruan gertatzen den bezala.

**BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PROPOSAMENA**

Aurkeztutako proposamena eskertzen dugu eta alegazioa/eskaera onestea proposatzen dugu. Horren arabera, alegatzaileari Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena bidaliko zaio Bizkaiko Estatuaren Abokatutzak 2025eko maiatzaren 28an egin zuen txostenarekin batera. Azken hori Estatuko Abokatutza Nagusiaren Kontsultarako Zuzendaritza Nagusiak berretsi zuen eta BPAZPBren aldaketa puntualaren memoriaren II. eranskinean jasota dago.

**3. ALEGAZIOA**

| | |
|---|---|
| **ALEGATZAILEA** | EDUARDO ANDRADE AURRECOECHEA JAUNA, GETXOKO ALDERDI POPULARRAREN bozeramaile gisa |

**ALEGAZIOAREN LABURPENA**

Getxoko Alderdi Popularra udal-taldeko bozeramaileak azaldu du Getxoko Kirol Portuan 26 metroko altuera eta 8 solairu izango dituen hotel bat eraikitzeko proiektuaren berri izan duela. Esan du proiektuaren aurka dagoela inpaktu bisuala eta paisajistikoa eta hiri-inguruarekiko proportziorik eza direla-eta (bereziki eraikinaren altuerarengatik), baita ere bizi-kalitatean eragingo lukeelako (trafiko eta zarata gehiago, presioa zerbitzu publikoen gainean, espazio publikoen argiteria naturala kaltetzea eta itsas flora eta fauna ere bai). Hala, eskatu du paisaia, indarreko araudia eta herritarren ongizatea gehiago errespetatzen dituzten irtenbideak lehenetsi daitezela, eta, horretarako, gehienez ere olatu-horma baino altuera bat garaiagoa den eraikina egin dadila.

Gainera, esan du plan bereziaren aldaketak ez duela bizitegi-erabilera ahalbidetzeko beharrezko justifikaziorik, eta aldarrikatu du beharrezkoa dela kutsatuta egon daitezkeen lurzoru gisa katalogatzeko neurriak ezartzea (IHOBEren inbentarioan jasotakoaren arabera). Horregatik, ingurumen-ebaluazio espezifikoa eta aurretiazko deskontaminazio-neurriak eskatu ditu, proiektuan ez baitira behar beste xehatu.

**ALEGAZIOARI ERANTZUTEKO TXOSTENA**

Lehenik eta behin, argitu behar dugu Bilboko Portuko Agintaritzak Bizkaiko Foru Aldundian aurretiaz onesteko sustatu duen agiria ez dela, inolaz ere, hotel bat eraikitzeko proiektua. Hala, soilik portu-antolamendurako agiri baten aldaketarekin lotuta dago (zehazki, portuko zerbitzu-gunearen antolamendurako plan bereziaren aldaketa puntuala) eta horren izapidea eta irismena portuko sektore-araudian araututa daude, hau da, irailaren 5eko 2/2011 Legegintza Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Estatuko portuen eta merkataritzako ontzidiaren legearen testu bateginean.



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 11 de 53

Bilbao PORT

Horrenbestez, existitzen ez den eraikuntza-proiektuaren inguruan azaldutako kontu guztiak ez dira prozedura-une honetan landu behar. Une honetan bakarrik aukera bat gaitzen da, etorkizunean portu-eremu horretan hotel-establezimendu bat egon ahal izatea portuko araudi-sektoreko baldintzak betez eta horiekin bat eginez. Hala eta guztiz ere, Portuko Agintaritza hau bat dator alegatzailearekin eta uste dugu edonola ere etorkizunean eraikuntza-proiektu posible bat egiteko jarduketek zorrozki bete beharko dutela ingurumen-araudia eta bereziki Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 25eko 4/2015 Legea; baldintza hori berariaz jasota dago BPAZPBren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen 16. artikuluan.

Gauzak horrela, aldatzen ari diren plan bereziaren hirigintza-parametroak izan beharko lirateke zorrozki zalantzan jarri beharrekoak alegatutako inpaktu bisualari, paisajistikoari eta kalitateari dagokienez.

Horren inguruan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurune Naturala eta Nekazaritza Zaintzeko Sailak izapidetzen ari diren BPAZPBren aldaketa puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin du. Aurretik eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsultatzeko izapidetzea egin zen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean jendaurrean erakusteko izapidea ere bete zen. Gainera, ondoren ingurumen-txosten estrategikoa bidali zen 2025eko urtarrilaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako urtarrilaren 20ko 995/2025 Foru Aginduaren bitartez. Agiri horretan izapidetzen ari den dokumentazioa analizatzen da ingurumen-ebaluazioaren araudian ezarritako irizpideak aintzat hartuta eta zehazten du proposamenak ez duela eragin nabarmenik sortzen ingurumenean, betiere, txosteneko baldintzak betetzen badira. Baldintza horiek behar bezala jaso dira BPAZPBren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen zehaztapenetan (12. eta 14. artikuluak, memoriaren I. eranskina eta 10.3 puntua).

Justifikazioa eta arrazoiketa falta izatearen inguruan azpimarratzen dugu portuko zerbitzu-gunean garatuko diren erabilerak eta jarduerak zehaztea estatuaren eskumenekoa dela esklusiboki. Zehazki, hauek dira estatuaren eskumenak: (i) ministerio-organoak portuko espazioen eta erabileren mugaketa (PEEM) onestea, (ii) zerbitzu-gunea nahitaez portuko sistema orokor gisa kalifikatzea, eta (iii) zerbitzu-gunearen antolamendurako plan bereziaren bitartez garatzea. Horrek berariaz arautzen du portuko sektore-araudia eta xedatzen du hirigintza-administrazioarekin desadostasunak sortuz gero, azken erabaki loteslea Ministroen Kontseiluak hartuko duela. Hala, irizpide bat aitortzen da eta horren arabera estatuak lehentasunezko interesa du Konstituzio Auzitegiak interes orokorreko portuen inguruan hartzen dituen erabakietan eta estatuaren interesa gailendu egingo zaio lurraldea antolatzeko autonomia-erkidegoko araubideari; azken horrek estatuaren eskumen horiek errespetatu behar ditu eta ez ditu oztopatu behar. Printzipio horiek berariaz jasota daude portuko sektore-araudian (EPMOLTBren 56. eta 59. artikuluak).

PEEMk portuko mugaketa gisa jokatzen du portuaren hirigintza-garapenaren aurretik eta portu-eremu barnean posible diren erabilerak zehazten ditu, erabilera horiek portukoak izan ala ez gorabehera. Bilboko Portuko PEEM onesten duen Ministerioaren Agindu hori (TRM 509/2024 Agindua, maiatzaren 10ekoa eta 2024ko uztailaren 23an ebazpen bidez onetsi zen aldaketa ez funtsezkoa) irmoa da. Beraz, ez dira zentzuzkoak kirol-portuaren espazio batzuei esleitutako “portua-hiria interakzioa” portukoa ez den



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 12 de 53

erabilerari egindako kexak; erabilera hori berariaz jasota dago portuko jabari publikoaren arauaren 69. artikuluan.

Portuko erabilerak PEEMren edukiaren parte gisa zehazteak baldintzatu edo aldatu egiten du eraginpeko administrazioen lurralde-antolamendurako eta hirigintzarako eskumenen edukia. Beste alde batetik, eskumen horiek egikaritzen dituzte administrazioek plan bereziaren edo portuko zerbitzu-gunea antolatzen duen tresna baliokide baten bidez. Plan berezia edo tresna hori diseinatuta dago "portuko espazioan eskumen aldiberekoa duten administrazioen arteko beharrezko koordinazioa egituratzeko" Konstituzio Auzitegiak agindutako baldintzak betez (Konstituzio Auzitegiaren 77/84 Epaia, 1. eta 3. oinarri juridikoak, Konstituzio Auzitegiaren 40/98 Epaia, 12.,17., 30. eta 35. oinarri juridikoak, eta Konstituzio Auzitegiaren 63/23 Epaia). Horrenbestez, ezin dute portuko ustiapen-eskumenak egikaritzea oztopatzen edo eragozten duten zehaztapenik ezarri. Aurrekoa interes orokorraren ondorioa da, bai estatuaren eskumena esleitzeko, bai eta hirigintza-administrazioaren eskumenen edukiaren irismenaren aldaketa kontrako zentzuan justifikatzeko ere.

Egiaz, soilik estatuaren eskumenekoak diren portuen erreserba interes orokorrean oinarrituta dago eta Espainiako portu-sistema osoan bere funtzioak duen arretari erreparatuz kontuan hartu beharra dago (Konstituzioaren 149.1.20ª artikulua, Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia, 17. oinarri juridikoa, eta EPMOLTBren 2.5 eta 4. artikuluak). Bilboko Portua horrela aitortuta dago Estatuko portuen eta merkataritzako ontzidiaren legearen testu bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintza Errege Dekretuaren I. eranskinean. Horrenbestez, Bilboko Portuaren gaineko eskumen esklusiboa Estatuko Administrazio Nagusiak du (EPMOLTBren 11. artikulua) eta Portuko Agintaritzari dagokio autonomia-araubidean kudeatzea eta Estatuko Portuei dagokie portuko sistemaren efizientzia koordinatzea eta kontrolatzea (EPMOLTBren 13. artikulua).

Kudeaketa bateratuaren printzipioa portuko testuaren 3.6 artikuluan jasota dago gaur egun eta Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaiaren 12. oinarri juridikoak hau dio printzipio horren inguruan: *«Eskumen hori portuko errealitate fisikoan eta portuko jardueran hedatzen da». Espazio horretan abiapuntua da «estatuak portuko zerbitzu-gune osoa eskuragarri izateko ahala duela», eta modu horretan, «ez da eskumenik esleitzen portuko jarduera-mota batzuen inguruan, baizik eta portuaren gainean, bere horretan...portuko errealitate fisikoaren gaineko eskumena da eta bertan garatzen den jardueraren gainekoa ere bai» eta horrek ez du eragozten errealitate horren gainean «bestelako eskumen-tituluek eragin ahal izatea (besteak beste, hirigintzakoek edo lurralde-antolamendukoek)».*

Azken finean, estatuaren eskumen esklusiboak ahalbidetu egiten du legez autonomia-erkidegoek lurralde-antolamenduan eta hirigintzan dituzten eskumenak baldintzatzea (Konstituzio Auzitegiaren 149/1991 eta 36/1994 Epaiak).

Eskumen horiek egikarituz Bilboko Portuko Agintaritzaren kide anitzeko gobernu-organoak, indarreko plan estrategikoa aintzat hartuta, onetsi egin zuen Getxo udalerrian zerbitzu-gunearen plan bereziaren aldaketa idaztea PEEMra egokitze aldera. Horretarako, Getxoko Kirol Portuan hotel bat ezartzeko aukeraren hirigintza-aurreikuspena sartu zuen, baina inolaz ere ez proiektu zehatz bat. Errepikatzen dugu ez dela horrelako proiekturik existitzen eta portuko sektore-araudiaren xedapenekin bat



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 13 de 53

etorriz jardun zen, hauek kontuan hartuta: Bilboko Portuak kokapen aldekoa du, iberiar penintsula iparraldeko portu nagusietako bat baita gurutzaontzien trafikoan, eskalak gehitu dira gurutzaontzietako bidaiariak ontziratzeko eta lehorreratzeko portu gisa eta horrelako trafikoetarako *home port* jarduera promozionatu da. Hala, portuko zerbitzu eta azpiegitura diferentzialen eskaintza indartu da eta horrelako trafikoetan hazkunde-aukerak sortuko dituzte, era berean, lurralderako balio-sorkuntza maximizatuz.

BPAZPB egokitzeak (hotel-erabilerak BPAZPBra moldatzeko) ez du nahitaez esan nahi hotela ezarriko denik, soilik aukera hori ikusgai egiten du eta ez du halabeharrez zehazten hotela ezartzeko beharrik ezta obligaziorik dagoenik. Edonola ere, etorkizunean hotel-proiektu bat aurkezten baldin bada Ministroen Kontseiluak indargabetu egin beharko du hotel-erabileraren debekua eta aurretik Estatuko Portuek txostena egin beharko dute, berariaz BPAZPBren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen 20.2 artikuluan jasota dagoen bezala.

Horren inguruan zehaztu beharra dago EPMOLTBren 72. artikuluak berariaz xedatzen duela posible dela ez ohiko kasuetan hotel-erabileretarako eraikuntzak onartzea. Hala eta guztiz ere, aukera hori ez da librea eta baldintza batzuk bete behar ditu. Modu horretan, legeak dio horrelako erabilerak eta xedeak bat datozela portu-erabilerekin, betiere, hotel-erabileraren debekua indargabetzeko baldintzak betetzen badira.

Aurrekoa gorabehera, eta aintzat hartuta erakundeak, bizilagunak eta erabiltzaileak kezkatuta daudela hotelak sor ditzakeen paisaia-inpaktuak direla-eta, eta zehazki urtarrilaren 20ko 995/2025 Foru Aginduaren xedapenak hobetzeko, Bilboko Portuko Agintaritzak beharrezkotzat jotzen du eraikuntza horretarako gehieneko altuera finkatzea eta portuko merkataritza-erabilerarako espazioaren eraikinetarako finkatutakoa aplikatzea, hau da, 16 metroko gehieneko altuera. Alderdi hori ez du alegatzaile batek ere zalantzan jarri ezta alegatu, eta aurreikuspen hori berariaz dago jasota agirian.

**BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PROPOSAMENA**

Alegazio hau beste erakunde eta partikular batzuek azaldutako kezkari gehitzen zaio, besteak beste, Getxoko Udalaren 1. alegazioari eta, bereziki, martxan dagoen izapidean ingurumen-organoak emandako ebazpenean jasotako xedapenei. Hala, Bilboko Portuko Agintaritzak ezin ditu horiek guztiak alboratu. Horrenbestez, aurkeztutako proposamena eskertu eta gero, proposatzen dugu alegazioa partzialki onestea etorkizuneko hotelaren gehieneko altuera gutxitzeari dagokionez, Getxoko Udalaren 1. alegaziorako proposatutako antzeko moduan, eta txosten honetako 4. kapituluan zehaztuko den bezala.

| **4. ALEGAZIOA** | |
|---|---|
| **ALEGATZAILEA** | V.S.L.S.L.P. (ANTONIO SANCHO VILLANOVA JAUNAK ordezkatuta) |
| **ALEGAZIOAREN LABURPENA** | |
| | |



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 14 de 53

| |
|---|
| VELAZQUEZ SANCHO LOPEZ ASOCIADOS, SOCIEDAD LIMITADA PROFESIONAL (V.S.L.S.L.P.) sozietateak azaldu du jendaurrean jarritako dokumentuak akatsak dituela edukian eta legeriaren zehaztapenean, honako hauek direla-eta:<br><br>1.- Ez da gehitu inpaktu normatiboaren analisiaren memoriarik, Memoria arautzen duen urriaren 27ko 931/2017 Errege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoa betez.<br><br>2.- Ez dira zuzen ebaluatu egungo egoera (inguru naturala, hirikoa eta gizakiena) eta inguru hurbilean detektatu diren inpaktuak.<br><br>3.- Justifikazioa ez da egokia portua-hiria interakzioaren eta irisgarritasunaren artean, Euskal Autonomia Erkidegoko energia-jasangarritasunaren otsailaren 21eko 4/2019 Legearen 7.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Horren arabera, antolamendu xehatuaren planek energia-jasangarritasunari buruzko azterlan bat izan behar dute eta azterlan horrek, era berean, mugikortasun-azterketa izan behar du.<br><br>4.- Ez da modu arrazoituan egiaztatu interes orokorreko irizpideak betetzen direnik, eta ez da EPMOLTBren 72.4 artikuluak eskatutako Estatuko Portuen txostenik entregatu; aurrekoak beharrezkoak dira Ministroen Kontseiluak indargabetu dezan hotel-instalazioak egotea portuko jabari publikoko espazioetan.<br><br>Azaldutakoaren arabera, BPAZPBren aldaketa puntuala berrikusteko eta egokitzeko eskatu dute, modu horretan, behar beste eta indarreko araudia betez justifikatuta geratu dadin ezarritako antolamendua. Gainera, beharrezko motibazioa eta gardentasun- eta legezkotasun-printzipioak errespetatzen direla bermatu behar da, bereziki, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean aipatutako garapen jasangarrirako printzipioa abiapuntutzat hartuta. |
| **ALEGAZIOARI ERANTZUTEKO TXOSTENA** |
| Alegatzaileak zehaztasuna falta du nabarmen, agiriaren xede eta izaerari buruz, eta aplikatzekoa den araudiari buruz ere bai.<br><br>Aipatu zuten urriaren 27ko 931/2017 Errege Dekretua urratzen dela inpaktu normatiboaren memoria falta delako arau horren egiturarekin eta edukiekin. Aipatutako akatsa ez da inolaz ere onargarria jarduketa hauei dagokien lege-esparru honekin bat etorriz: bereziki EPMOLTB, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea antolatzeko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea, Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua eta Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea. Gainera, kontuan hartu beharra dago portuko zerbitzu-gunea antolatzeko plan bereziaren berezitasuna. Azken hori, besteak beste, irailaren 16ko Justizia Auzitegi Gorenaren 573/2009 Epaian aitortu zen eta memoria eta eranskinak idaztea portuko sistema orokorra antolatzeko araubidez nahitaezkoak diren edukiekin agertzen dira eta horien eduki xeheak aipatuko ditugu, bereziki apartatu hauek: “8. Portuko plangintzaren eta beste plangintza-eremu batzuen arteko lotura”, 10. “Ingurumen-jasangarritasunaren txostena”, 11. Gizarte-jasangarritasuna” eta “13. Energia-jasangarritasunaren azterlana. 13.6) mugikortasun-azterlana”. |



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 15 de 53

Aipatutako gainerako urraketei dagokienez, azaldu beharra dago izapidetzen ari den jarduketaren xedea indarreko portu-antolamenduko tresna baten aldaketa puntuala egitea dela sektore-araudi baten menpe dagoen portuko espazio bat arautze aldera. Sektore-araudi horren zehaztapenak finkatzeko kontuan hartzen da estatuak interes orokorreko portuen inguruan duen eskumena.

Portua antolatzeko tresnaren aldaketa izapidetzeko dagokion ingurumen-ebaluazioaren tramitazioa egin da. Gainera, Ingurumen-txosten estrategikoa egitea ebazten duen otsailaren 20ko 995/2025 Foru Agindua eman zen eta horren bitartez zenbait baldintza ezarri ziren alegatzaileek inguru hurbileko inpaktuen inguruan aipatu zituzten kontu batzuei erantzuteko eta hirigintza-arauetan txertatu dira, zehazki, 12.3 artikuluan.

Okerra da, baita ere, esatea BPAZPBren aldaketa puntualak ez duela energia-jasangarritasunaren azterlanik. 4/2019 Legeak ez du xehatzen antolamendu xehatuaren planek azterlan hori izan behar dutenik. Izan ere, ondorengo araubide-garapen bat aipatzen du eta orain arte ez da horrelakorik gertatu. Edonola ere, agiriak energia-jasangarritasunaren azterlan bat gehitzen du memoriaren I. eranskin gisa, ingurumen-txosten estrategikoaren 3. ondorioa betez. Aipatutako azterlanak lege horren 7.3 artikuluan ezarritako edukiak jasotzen ditu eta horien artean dago mugikortasun jasangarriari buruzko artikulu bat.

Alegatzaileak aipatu zuen jarduketaren interes orokorra ez dagoela justifikatuta. Horri buruz azaldu beharra dugu interes orokorrekoa dela estatuaren eskumenak esleitzea interes orokorreko portuetan eta hirigintza-administrazioaren eskumenen edukien irismena aldatu izana justifikatzea ere bai, eta bereziki, Bilboko Portuko Agintaritzak aipatutako arrazoiketa plan bereziaren aldaketaren erabakia hartzeko.

Horrekin lotuta, portuko zerbitzu-gunean garatuko diren erabilerak eta jarduerak zehazteari dagokionez, estatuaren eskumen esklusibo eta baztertzailea da eta hauetan hezurmamitzen da: (i) ministerio-organoak portuko espazioen eta erabileren mugaketa (PEEM) onestea, (ii) zerbitzu-gunea nahitaez portuko sistema orokor gisa kalifikatzea, eta (iii) zerbitzu-gunearen antolamendurako plan bereziaren bitartez garatzea. Horrek berariaz arautzen du portuko sektore-araudia eta xedatzen du hirigintza-administrazioarekin desadostasunak sortuz gero, azken erabaki loteslea Ministroen Kontseiluak hartuko duela. Hala, irizpide bat aitortzen da eta horren arabera estatuak lehentasunezko interesa du Konstituzio Auzitegiak interes orokorreko portuen inguruan hartzen dituen erabakietan eta estatuaren interesa gailendu egingo zaio lurraldea antolatzeko autonomia-erkidegoko araubideari; azken horrek estatuaren eskumen horiek errespetatu behar ditu eta ez ditu oztopatu behar. Printzipio horiek berariaz jasota daude portuko sektore-araudian (EPMOLTBren 56. eta 59. artikuluak).

PEEMk portuko mugaketa gisa jokatzen du portuaren hirigintza-garapenaren aurretik eta portu-eremu barnean posible diren erabilerak zehazten ditu, erabilera horiek portukoak izan ala ez gorabehera. Bilboko Portuko PEEM onesten duen Ministerioaren Agindu hori (TRM 509/2024 Agindua, maiatzaren 10ekoa eta 2024ko uztailaren 23an ebazpen bidez onetsi zen aldaketa ez funtsezkoa) irmoa da. Beraz, ez dira zentzuzkoak kirol-portuaren espazio batzuei esleitutako “portua-hiria interakzioa” portukoa ez den erabilerari egindako kexak; erabilera hori berariaz jasota dago portuko jabari publikoaren arauaren 69. artikuluan.



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 16 de 53

Bilbao PORT

Portuko erabilerak PEEMren edukiaren parte gisa zehazteak baldintzatu edo aldatu egiten du eraginpeko administrazioen lurralde-antolamendurako eta hirigintzarako eskumenen edukia. Beste alde batetik, eskumen horiek egikaritzen dituzte administrazioek plan bereziaren edo portuko zerbitzu-gunea antolatzen duen tresna baliokide baten bidez. Plan berezia edo tresna hori diseinatuta dago “portuko espazioan eskumen aldiberekoa duten administrazioen arteko beharrezko koordinazioa egituratzeko” Konstituzio Auzitegiak agindutako baldintzak betez (Konstituzio Auzitegiaren 77/84 Epaia, 1. eta 3. oinarri juridikoak, Konstituzio Auzitegiaren 40/98 Epaia, 12.,17., 30. eta 35. oinarri juridikoak, eta Konstituzio Auzitegiaren 63/23 Epaia). Horrenbestez, ezin dute portuko ustiapen-eskumenak egikaritzea oztopatzen edo eragozten duten zehaztapenik ezarri. Aurrekoa interes orokorraren ondorioa da, bai estatuaren eskumena esleitzeko, bai eta hirigintza-administrazioaren eskumenen edukiaren irismenaren aldaketa kontrako zentzuan justifikatzeko ere.

Egiaz, soilik estatuaren eskumenekoak diren portuen erreserba interes orokorrean oinarrituta dago eta Espainiako portu-sistema osoan bere funtzioak duen arretari erreparatuz kontuan hartu beharra dago (Konstituzioaren 149.1.20ª artikulua, Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia, 17. oinarri juridikoa eta EPMOLTBren 2.5 eta 4. artikuluak). Bilboko Portua horrela aitortuta dago Estatuko portuen eta merkataritzako ontzidiaren legearen testu bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintza Errege Dekretuaren I. eranskinean. Horrenbestez, Bilboko Portuaren gaineko eskumen esklusiboa Estatuko Administrazio Nagusiak du (EPMOLTBren 11. artikulua) eta Portuko Agintaritzari dagokio autonomia-araubidean kudeatzea eta Estatuko Portuei dagokie portuko sistemaren efizientzia koordinatzea eta kontrolatzea (EPMOLTBren 13. artikulua).

Kudeaketa bateratuaren printzipioa portuko testuaren 3.6 artikuluan jasota dago gaur egun eta Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaiaren 12. oinarri juridikoak hau dio printzipio horren inguruan: *«Eskumen hori portuko errealitate fisikoan eta portuko jardueran hedatzen da». Espazio horretan abiapuntua da «estatuak portuko zerbitzu-gune osoa eskuragarri izateko ahala duela», eta modu horretan, «ez da eskumenik esleitzen portuko jarduera-mota batzuen inguruan, baizik eta portuaren gainean, bere horretan...portuko errealitate fisikoaren gaineko eskumena da eta bertan garatzen den jardueraren gainekoa ere bai» eta horrek ez du eragozten errealitate horren gainean «bestelako eskumen-tituluek eragin ahal izatea (besteak beste, hirigintzakoek edo lurralde-antolamendukoek)».*

Eskumen horiek egikarituz Bilboko Portuko Agintaritzaren kide anitzeko gobernu-organoak, indarreko plan estrategikoa aintzat hartuta, onetsi egin zuen Getxo udalerrian zerbitzu-gunearen plan bereziaren aldaketa idaztea PEEMra egokitze aldera. Horretarako, Getxoko Kirol Portuan hotel bat ezartzeko aukeraren hirigintza-aurreikuspena sartu zuen, baina inolaz ere ez proiektu zehatz bat. Errepikatzen dugu ez dela horrelako proiekturik existitzen eta portuko sektore-araudiaren xedapenekin bat etorriz jardun zen, hauek kontuan hartuta: Bilboko Portuak kokapen aldekoa du, iberiar penintsula iparraldeko portu nagusietako bat baita gurutzaontzien trafikoan, eskalak gehitu dira gurutzaontzietako bidaiariak ontziratzeko eta lehorreratzeko portu gisa eta horrelako trafikoetarako *home port* jarduera promozionatu da. Hala, portuko zerbitzu eta azpiegitura diferentzialen eskaintza indartu da eta horrelako trafikoetan hazkunde-aukerak sortuko dituzte, era berean, lurralderako balio-sorkuntza maximizatuz.

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 17 de 53

BPAZPB egokitzeak (hotel-erabilerak BPAZPBra moldatzeko) ez du nahitaez esan nahi hotela ezarriko denik, soilik aukera hori ikusgai egiten du eta ez du halabeharrez zehazten hotela ezartzeko beharrik ezta obligaziorik dagoenik. Edonola ere, etorkizunean hotel-proiektu bat aurkezten baldin bada Ministroen Kontseiluak indargabetu egin beharko du hotel-erabileraren debekua eta aurretik Estatuko Portuek txostena egin beharko dute, berariaz BPAZPBren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen 20.2 artikuluan jasota dagoen bezala.

Horren inguruan zehaztu beharra dago EPMOLTBren 72. artikuluak berariaz xedatzen duela posible dela ez ohiko kasuetan hotel-erabileretarako eraikuntzak onartzea. Hala eta guztiz ere, aukera hori ez da librea eta baldintza batzuk bete behar ditu. Modu horretan, legeak dio horrelako erabilerak eta xedeak bat datozela portu-erabilerekin, betiere, hotel-erabileraren debekua indargabetzeko baldintzak betetzen badira.

Aurrekoa gorabehera, eta aintzat hartuta erakundeak, bizilagunak eta erabiltzaileak kezkatuta daudela hotelak sor ditzakeen paisaia-inpaktuak direla-eta, eta zehazki urtarrilaren 20ko 995/2025 Foru Aginduaren xedapenak hobetzeko, Bilboko Portuko Agintaritzak beharrezkotzat jotzen du eraikuntza horretarako gehieneko altuera finkatzea eta portuko merkataritza-erabilerarako espazioaren eraikinetarako finkatutakoa aplikatzea, hau da, 16 metroko gehieneko altuera. Alderdi hori ez du alegatzaile batek ere zalantzan jarri ezta alegatu, eta aurreikuspen hori berariaz dago jasota agirian.

**BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PROPOSAMENA**

Aurkeztutako proposamena eskertzen dugu, baina alegazio hori ezestea proposatzen dugu. Izan ere, alegazioan jasotako alderdi batek ere ez du araudi-oinarri nahikorik BPAZPBren aldaketa puntuala berrikusi eta egokitzeko eta agiria berriro ere izapidetzeko.

| **5. ALEGAZIOA** | |
|---|---|
| **ALEGATZAILEA** | MIKEL BILDOSOLA AGIRREGOMEZKORTA JAUNA, bere izenean eta GETXOKO EH BILDU UDAL-TALDEAREN zinegotzi bozeramaile gisa |

**ALEGAZIOAREN LABURPENA**

Mikel Bildosola Agirregomezkorta jaunak egindako alegazioetan lehendabizi eskatu du aldaketa dagoen bezala ez onesteko. Izan ere, bere esanetan, interes orokorraren eta aplikatzekoa den ordenamendu juridikoaren aurkakoa da (EPMOLTBren 72.4 artikulua). Gainera, ingurumenari, hirigintzari eta kostaldea babesteari buruzko araudien aurkakoa da eta interes ekonomiko pribatuak lehenesten ditu interes publikoaren eta espazioaren jasangarritasunaren aurretik.

Botere-desbideraketa alegatu du, uste duelako jarduteko modua (hau da, Puerto Deportivo El Abra-Getxo SA merkataritza-sozietate publikoak administrazio-emakida


Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 18 de 53

bat lizitatu eta adjudikatu izana berariaz baloratuz hotel bat eraikitzea barne hartzen zuten proposamenak aurreproiektuaren eta negozio-planaren parte gisa, nahiz eta hotel-erabilera baimenduta ez egon. Hala, hotel-erabilera sustatu zuten aldaketa oraindik onetsi gabe zegoenean) “nahieran” egindako hirigintza-aldaketa zela eta xedea ez datorrela bat interes orokorrarekin. Izan ere, alegatzailearen esanetan, lizitazioaren emakidadunek egindako hotel-proposamen batzuk hirigintzaren esparrutik bideragarriak izatea da asmoa.

Era berean, alegatzailearen ustez interes orokorra ez dago behar beste egiaztatuta. Izan ere, BPAZPBren aldaketa puntuala ez dator bat indarreko plangintzarekin, ez dago azterlan zorrotz bat gurutzaontzietako bidaiarien eta tripulatzaileen gaua pasatzeko benetako eskariaren inguruan eta ez da ebaluatu ea horrek justifikatzen ote duen egungo kirol-erabilera aldatzea interes orokorrari erreparatuz. Horrela egingo balitz, sarbide publikoa murriztuko litzateke aisialdi-espazio batean eta tokiko biztanleei eragingo lieke horrek eta paisaia eta ingurumena kaltetuko lirateke.

Hirugarrenik, alegatu du paisaia-integrazioaren azterlana (ekainaren 3ko 90/2014 Dekretua) falta dela, eta ez dago ados eremuarentzat katalogoan xedatutako paisaia-kalitatearen helburuekin eta Bilbo metropoliko eremu funtzionalaren paisaia-zehaztapenekin.

Laugarrenik, aipatu du lurralde-antolamendurako zuzentarauak urratu direla (21. artikulua). Antolamenduak egiaztatu behar du ez duela pantaila-efekturik sortzen, ez duela bistarik kentzen eta ez duela ertzetako espazio librerik murrizten.

Bosgarrenik, aipatu du ez dagoela inolako txostenik non adierazten den aldaketa-proposamena eta Getxoko HAPOn xedatutakoa bat datozenik.

Aurreko guztiarengatik, eskatu du bere alegazioak onesteko eta Getxoko Kirol Portuan hotel-erabileraren gaikuntza indargabetzeko, edo, subsidiarioki, espedientea atzera eramateko, honako hauek egite aldera: paisaia-integrazioko azterlana gehitzea, paisaia-kalitatearen helburuak sartzea plan bereziaren araudi-baldintzetan, egiaztatzea ez dela narriatzen kalitate-mota eta hauskortasuna ez dela gehitzen eta, hala badagokio, neurri konpentsatzailea definitzea, Getxoko HAPOrekin xehatutako hirigintza-bateragarritasunaren txostena egitea eta justifikatzea proposamenak ez duela pantaila-efekturik sortzen, ez duela bistarik kentzen eta ez duela ertzetako espazio librerik murrizten.

## ALEGAZIOARI ERANTZUTEKO TXOSTENA

Plan bereziaren aldaketak Bilboko Portuko Agintaritzaren legezko interes bati erantzuten dio; zehazki, agintaritzak Bilboko Portua garatzeko baldintzak sustatu nahi ditu *home port* portua izan dadin eta Getxon hotel-erabilera ezartzea posible izateko. Aurreko guztia bat dator lehentasunez aplikatu beharreko portuko sektore-legeriaren xedapenekin, bereziki, “berezitasun-printzipioarekin”, zeina berariaz jasotzen den PEEM agirian portua-hiria interakzio-guneetan. Ondorioz, administrazio-ahalen egikaritzearen asmoa ordenamendu juridikoan finkatutako xede berbera da, gardentasun eta koherentzia osoarekin. Horregatik guztiz uko egiten zaio aipatutako botere-desbideraketari, ez baitu oinarririk. Gainera, aurretik sozietate publiko



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 19 de 53

emakidadunak sustatutako prozesu bat aipatzen du eta horrek ez du inolako loturarik Bilboko Portuko Agintaritzaren eskumenekin.

Modu osagarrian, portuko sektore-araudiak zehazten du portuko jabari publikoaren kudeaketaren xedea —interes orokorra bermatuz— dela portuko instalazioak finantzatzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko ekimen pribatuaren parte-hartzea sustatzea eta gehitzea, baita zerbitzu-prestazioetan ere. Horretarako, baimenak eta emakidak ematen dira eta errentagarritasun- eta efizientzia-irizpideak aplikatzen dira, berariaz EPMOLTBren 66. artikuluan jasota dagoen bezala.

Portuko zerbitzu-gunean garatuko diren erabilerak eta jarduerak zehazteari dagokionez, estatuaren eskumen esklusibo eta baztertzailea da hori eta hauetan hezurmamitzen da: (i) ministerio-organoak portuko espazioen eta erabileren mugaketa (PEEM) onestea, (ii) zerbitzu-gunea nahitaez portuko sistema orokor gisa kalifikatzea, eta (iii) zerbitzu-gunearen antolamendurako plan bereziaren bitartez garatzea. Horrek berariaz arautzen du portuko sektore-araudia eta xedatzen du hirigintza-administrazioarekin desadostasunak sortuz gero, azken erabaki loteslea Ministroen Kontseiluak hartuko duela. Hala, irizpide bat aitortzen da eta horren arabera estatuak lehentasunezko interesa du Konstituzio Auzitegiak interes orokorreko portuen inguruan hartzen dituen erabakietan eta estatuaren interesa gailendu egingo zaio lurraldea antolatzeko autonomia-erkidegoko araubideari; azken horrek estatuaren eskumen horiek errespetatu behar ditu eta ez ditu oztopatu behar. Printzipio horiek berariaz jasota daude portuko sektore-araudian (EPMOLTBren 56. eta 59. artikuluak).

PEEMk portuko mugaketa gisa jokatzen du portuaren hirigintza-garapenaren aurretik eta portu-eremu barnean posible diren erabilerak zehazten ditu, erabilera horiek portukoak izan ala ez gorabehera. Bilboko Portuko PEEM onesten duen Ministerioaren Agindu hori (TRM 509/2024 Agindua, maiatzaren 10ekoa eta 2024ko uztailaren 23an ebazpen bidez onetsi zen aldaketa ez funtsezkoa) irmoa da. Beraz, ez dira zentzuzkoak kirol-portuaren espazio batzuei esleitutako “portua-hiria interakzioa” portukoa ez den erabilerari egindako kexak; erabilera hori berariaz jasota dago portuko jabari publikoaren arauaren 69. artikuluan.

Portuko erabilerak PEEMren edukiaren parte gisa zehazteak baldintzatu edo aldatu egiten du eraginpeko administrazioen lurralde-antolamendurako eta hirigintzarako eskumenen edukia. Beste alde batetik, eskumen horiek egikaritzen dituzte administrazioek plan bereziaren edo portuko zerbitzu-gunea antolatzen duen tresna baliokide baten bidez. Plan berezia edo tresna hori diseinatuta dago “portuko espazioan eskumen aldiberekoa duten administrazioen arteko beharrezko koordinazioa egituratzeko” Konstituzio Auzitegiak agindutako baldintzak betez (Konstituzio Auzitegiaren 77/84 Epaia, 1. eta 3. oinarri juridikoak, Konstituzio Auzitegiaren 40/98 Epaia, 12.,17., 30. eta 35. oinarri juridikoak, eta Konstituzio Auzitegiaren 63/23 Epaia). Horrenbestez, ezin dute portuko ustiapen-eskumenak egikaritzea oztopatzen edo eragozten duten zehaztapenik ezarri. Aurrekoa interes orokorraren ondorioa da, bai estatuaren eskumena esleitzeko, bai eta hirigintza-administrazioaren eskumenen edukiaren irismenaren aldaketa kontrako zentzuan justifikatzeko ere.

Beraz, ez dago aipatutako interes orokorraren faltarik. Izan ere, soilik estatuaren eskumenekoak diren portuen erreserba interes orokorrean oinarrituta dago eta Espainiako portu-sistema osoan bere funtzioak duen arretari erreparatuz kontuan hartu



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 20 de 53

beharra dago (Konstituzioaren 149.1.20ª artikulua, Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia, 17. oinarri juridikoa eta EPMOLTBren 2.5 eta 4. artikuluak). Bilboko Portua horrela aitortuta dago Estatuko portuen eta merkataritzako ontzidiaren legearen testu bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintza Errege Dekretuaren I. eranskinean. Horrenbestez, Bilboko Portuaren gaineko eskumen esklusiboa Estatuko Administrazio Nagusiak du (EPMOLTBren 11. artikulua) eta Portuko Agintaritzari dagokio autonomia-araubidean kudeatzea eta Estatuko Portuei dagokie portuko sistemaren efizientzia koordinatzea eta kontrolatzea (EPMOLTBren 13. artikulua).

Kudeaketa bateratuaren printzipioa portuko testuaren 3.6 artikuluan jasota dago gaur egun eta Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaiaren 12. oinarri juridikoak hau dio printzipio horren inguruan: *«Eskumen hori portuko errealitate fisikoan eta portuko jardueran hedatzen da». Espazio horretan abiapuntua da «estatuak portuko zerbitzu-gune osoa eskuragarri izateko ahala duela», eta modu horretan, «ez da eskumenik esleitzen portuko jarduera-mota batzuen inguruan, baizik eta portuaren gainean, bere horretan...portuko errealitate fisikoaren gaineko eskumena da eta bertan garatzen den jardueraren gainekoa ere bai» eta horrek ez du eragozten errealitate horren gainean «bestelako eskumen-tituluek eragin ahal izatea (besteak beste, hirigintzakoek edo lurralde-antolamendukoek)».*

Azken finean, estatuaren eskumen esklusiboak ahalbidetu egiten du legez autonomia-erkidegoek lurralde-antolamenduan eta hirigintzan dituzten eskumenak baldintzatzea (Konstituzio Auzitegiaren 149/1991 eta 36/1994 Epaiak).

Horrenbestez, ez da onartzen Lurralde Antolamendurako Zuzentarauak urratu direnik. Zuzentarau horiek baldintzatuta daude eta portuko sektore-legeriaren xedapenak bete behar dituzte, zehazki, EPMOLTBren hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Hizpide dugun kasu honetan zehazten du jabetza-mugak baztertzen direla jabari publikoa babesteko arrazoiak direla-eta. Horren inguruan berariaz hitz egin zuen Bizkaiko Estatuaren Abokatutzak 2025eko maiatzaren 28ko 0048/10/000052/2025 txostenean eta Kontsulten Zuzendaritza Nagusiak baieztatu zuen erakunde publikoen abokatutza nagusiaren 63/2025 (R-773/2025) txostenean, administrazio-espedientean dagoena.

Eskumen horiek egikarituz Bilboko Portuko Agintaritzaren kide anitzeko gobernu-organoak, indarreko plan estrategikoa aintzat hartuta, onetsi egin zuen Getxo udalerrian zerbitzu-gunearen plan bereziaren aldaketa idaztea PEEMra egokitze aldera. Horretarako, Getxoko Kirol Portuan hotel bat ezartzeko aukeraren hirigintza-aurreikuspena sartu zuen, baina inolaz ere ez proiektu zehatz bat. Errepikatzen dugu ez dela horrelako proiekturik existitzen eta portuko sektore-araudiaren xedapenekin bat etorriz jardun zen, hauek kontuan hartuta: Bilboko Portuak kokapen aldekoa du, iberiar penintsula iparraldeko portu nagusietako bat baita gurutzaontzien trafikoan, eskalak gehitu dira gurutzaontzietako bidaiariak ontziratzeko eta lehorreratzeko portu gisa eta horrelako trafikoetarako *home port* jarduera promozionatu da. Hala, portuko zerbitzu eta azpiegitura diferentzialen eskaintza indartu da eta horrelako trafikoetan hazkunde-aukerak sortuko dituzte, era berean, lurralderako balio-sorkuntza maximizatuz.

BPAZPB egokitzeak (hotel-erabilerak BPAZPBra moldatzeko) ez du nahitaez esan nahi hotela ezarriko denik, soilik aukera hori ikusgai egiten du eta ez du halabeharrez zehazten hotela ezartzeko beharrik ezta obligaziorik dagoenik. Edonola ere, etorkizunean hotel-proiektu bat aurkezten baldin bada Ministroen Kontseiluak



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 21 de 53

indargabetu egin beharko du hotel-erabileraren debekua eta aurretik Estatuko Portuek txostena egin beharko dute, berariaz BPAZPBren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen 20.2 artikuluan jasota dagoen bezala.

Horren inguruan zehaztu beharra dago EPMOLTBren 72. artikuluak berariaz xedatzen duela posible dela ez ohiko kasuetan hotel-erabileretarako eraikuntzak onartzea. Hala eta guztiz ere, aukera hori ez da librea eta baldintza batzuk bete behar ditu. Modu horretan, legeak dio horrelako erabilerak bat datozela portu-erabilerekin, betiere, hotel-erabileraren debekua indargabetzeko baldintzak betetzen badira.

Proposamenaren paisaia-inpaktuei buruz ohar hauek egin behar ditugu. Lehenik eta behin, BPAZPBren aldaketa puntuala ez dago paisaia-integrazioaren azterlana izan behar duten kasuren batean ere. Aurrekoa Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7.3 artikuluan ezarrita dago.

Beste alde batetik, dekretu horren 7.2 artikuluak paisaia-integrazioko azterlanen edukiak ezartzen ditu eta horien artean daude proiektuaren ezaugarriak, hala nola kokapena eta sartzeak, altxaerak, sekzioak, solairuak, bolumetria, koloreak, materialak eta bestelako alderdi garrantzitsuak. Ezinezkoa da paisaia-integrazioa BPAZPBren aldaketa puntualaren bidez analizatzea. Izan ere, aldaketa horrek bakarrik hotel-erabilera ezartzeko aukera ematen du *portua-hiria interakzioa* erabilera-gunearen barnean eta gutxieneko parametro batzuk ezartzen ditu, adibidez, eraikuntzaren altuera. Premisa horretatik abiatuz, BPAZPBren aldaketa puntualak paisaia-integrazioa izatearen beharra etorkizuneko hotelaren eraikuntza-proiektura eramaten du.

20.3 artikuluak berariaz jasotzen du salbuespen kasu batean hotel-jarduera berria hartzeko ahalbidetu ahalko litzatekeen eraikuntza-proiektuak paisaia-integrazioko azterketa bat izan beharko duela, EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babesteari, kudeatzeari eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7. artikuluan jasotakoaren arabera, proposatutako eraikin berria Getxoko Kirol Portuaren esparruan eta haren inguruko hiri-ingurunean behar bezala integratzen dela justifikatzeko.

Bere aldetik, EAEko lurralde-antolamenduko gidalerroei dagokienez aipatu beharra dago 21. artikuluan gidalerro orokor batzuk jasotzen direla eta kasu bakoitzean aplikatu egin beharko dira hirigintza-prozeduren eta ingurumen-ebaluazio estrategikoen esparruan.

Horren inguruan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurune Naturala eta Nekazaritza Zaintzeko Sailak izapidetzen ari diren BPAZPBren aldaketa puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin du. Aurretik eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsultatzeko izapidetzea egin zen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean jendaurrean erakusteko izapidea ere bete zen. Gainera, ondoren ingurumen-txosten estrategikoa bidali zen 2025eko urtarrilaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako urtarrilaren 20ko 995/2025 Foru Aginduaren bitartez. Agiri horretan plana analizatzen da ingurumen-ebaluazioaren araudian ezarritako irizpideak aintzat hartuta eta zehazten du proposamenak ez duela ondorio garrantzitsurik ingurumenean, betiere, txosteneko baldintzak betetzen badira.

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 22 de 53

Bilbao PORT

Ingurumen-neurriak behar bezala txertatuta geratu dira izapidetzen ari den agirian, bai memorian (10. kapitulua “ingurumen-jasangarritasunaren txostena”), bai I. eranskinean (“Ingurumen-jasangarritasunaren azterlana), bai eta hirigintza-arauetan ere (2. titulua, 4. kapitulua “Gainjarritako baldintzatzaileak”).

Getxoko HAPOrekiko bateragarritasunari buruzko txostena falta dela dioten alegazioen inguruan, errepikatzen dugu hirigintza-antolamendurako tresna orokorrek (hau da, Getxoko HAPO) estatuko portuen zerbitzu-gunea soilik portuko sistema orokor gisa kalifikatu behar dutela eta plan berezi baten edo tresna baliokide baten bidez garatu behar dela. Aurrekoa Portuko Agintaritzak sortu behar du eta lege-aginduaren bidez eskuduna den hirigintza-administrazioak onetsi behar du (EPMOLTBren 56. artikulua).

Zalantzarik gabe hirigintza-eskumena autonomia-erkidegoarena da konstituzioarekin bat etorriz. Hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiak argitu eta zehaztu du hirigintza-agintaritza ez dela toki-agintaritza eta ez dela soilik plangintza orokorraren bidez egikaritzen. Hala, toki-autonomia udalaren esku-hartzearen bitartez osatzen da txostenak eta hirigintza-lizentziak erabiliz. Hala eta guztiz ere, inolaz ere ez du exijitzen plangintza udal-eskumenekoa izan behar denik, kasu honetan gertatzen den bezala (Konstituzio Auzitegiaren 40/98 Epaia, 39. oinarri juridikoa). Aurrekoaz gain, BPAZPBren aldaketa puntualaren memoriaren 8.2 atalaren edukia bidali da. Horren bitartez, portu-plangintza beste plangintza-eremu batzuekin lotzen da eta bereziki erreparatu behar zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren irailaren 16ko 573/2009 Epaiaren 7. oinarri juridikoari. Berariaz aitortzen du portuko sistema orokorraren berezitasuna eta nulutzat deklaratzen du ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 13. artikuluaren 2. apartatua.

Aurrekoari gagozkiola, Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia irakurrita argi geratzen da portu-espazioaren hirigintza arautzeko tresna egokia eta nahitaezkoa plan berezia dela, esleitutako erabilera edozein izanda ere, bai portu-erabileretarako bai eta EPMOLTBk baimendutako eta PEEMn ezarritako portukoak ez diren erabileretarako ere. Hala, nahikoa da HAPOn portuko zona portuko sistema orokor gisa xedatzea. Berariazko arauketa dagoenez, plangintza berezi honetako jarraibideak orokorrari gailentzen zaizkio. EPMOLTBren 69. eta 72. artikuluek berariaz xedatzen dituzte portukoak ez diren eta portua-hiria interakzioari lotuta dauden erabilerak; erabilera horiek hirigintza-arauketa izan beharko dute portuko plan bereziaren bitartez. Portukoak ez diren erabilerak PEEMn ezartzen dira portu-gune barnean eta, beraz, ez da eztabaidatu behar portu-araudia lehenesten dela udalaren HAPOren aurretik.

Aurreko ohar horietan oinarrituz, halabeharrez ondorioztatu beharra dago interes orokorreko portuen zerbitzu-gunearen antolamendua (plan bereziaren eta bere aldaketen bidez egiten dena) gauzatzeko ez dela beharrezkoa txosten bat egitea, dioena bateragarria dela udalaren hirigintza-plangintzarekin. Izan ere, portu-antolamendua lehenetsi egiten da hirigintza-antolamenduaren aurretik.

**BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PROPOSAMENA**

Aurkeztutako proposamena eskertu eta gero, alegazio hau ezestea proposatzen dugu. Izan ere, alegazioaren alderdi batek ere ez du behar besteko araudi-oinarririk Getxoko Kirol Portuan hotel-erabilera ezartzearen aukera ezabatzeko, ezta ere egindako

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 23 de 53

ingurumen- eta paisaia-analisia eta horren inguruan BPAZPBren aldaketa puntualak ezarri dituen zehaztapenak aldatzeko.

Beste alde batetik, alegazio hori espedientea izapidetzen ari den bitartean askotariko erakundeek eta partikularrek azaldutako kezkari batzen zaio. Hori dela-eta, partzialki onestea erabaki dugu, zehazki, etorkizuneko hotelaren gehieneko altuera murrizteari dagokionez, Getxoko Udalaren 1. alegaziorako proposatu diren antzeko terminoetan, zeintzuk txosten honen 4. kapituluan zehaztu diren.

| **6. ALEGAZIOA** | |
|---|---|
| **ALEGATZAILEA** | IBON RODRIGUEZ LARRINAGA JAUNA, bere izenean eta El Abra Getxo Kirol Portuaren kontseilari gisa |
| **ALEGAZIOAREN LABURPENA** | |

Ibon Rodríguez Larrinaga jaunak egindako alegazioetan lehendabizi eskatu du plan bereziaren aldaketa puntuala dagoen bezala ez onesteko. Izan ere, bere esanetan, interes orokorraren eta aplikatzekoa den ordenamendu juridikoaren aurkakoa da (EPMOLTBren 72.4 artikulua). Gainera, ingurumenari, hirigintzari eta kostaldea babesteari buruzko araudien kontrakoa da eta interes ekonomiko pribatuak lehenesten ditu interes publikoaren eta espazioaren jasangarritasunaren aurretik.

Botere-desbideraketa alegatu du, uste duelako jarduteko modua (hau da, Puerto Deportivo El Abra-Getxo SA merkataritza-sozietate publikoak administrazio-emakida bat lizitatu eta adjudikatu izana berariaz baloratuz hotel bat eraikitzea barne hartzen zuten proposamenak aurreproiektuaren eta negozio-planaren parte gisa, nahiz eta hotel-erabilera baimenduta ez egon. Hala, hotel-erabilera sustatu zuten aldaketa oraindik onetsi gabe zegoenean) “nahieran” egindako hirigintza-aldaketa zela eta xedea ez datorrela bat interes orokorrarekin. Izan ere, alegatzailearen esanetan, lizitazioaren emakidadunek egindako hotel-proposamen batzuk hirigintzaren esparrutik bideragarriak izatea da asmoa.

Era berean, alegatzailearen ustez interes orokorra ez dago behar beste egiaztatuta. Izan ere, BPAZPBren aldaketa puntuala ez dator bat indarreko plangintzarekin, ez dago azterlan zorrotz bat gurutzaontzietako bidaiarien eta tripulatzaileen gaua pasatzeko benetako eskariaren inguruan eta ez da ebaluatu ea horrek justifikatzen ote duen egungo kirol-erabilera aldatzea interes orokorrari erreparatuz. Horrela egingo balitz, sarbide publikoa murriztuko litzateke aisialdi-espazio batean eta tokiko biztanleei eragingo lieke horrek eta paisaia eta ingurumena kaltetuko lirateke.

Hirugarrenik, alegatu du paisaia-integrazioaren azterlana (ekainaren 3ko 90/2014 Dekretua) falta dela, eta ez dago ados eremuarentzat katalogoan xedatutako paisaia-kalitatearen helburuekin eta Bilbo metropoliko eremu funtzionalaren paisaia-zehaztapenekin.

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 24 de 53

Laugarrenik, aipatu du lurralde-antolamendurako zuzentarauak urratu direla (21. artikulua). Antolamenduak egiaztatu behar du ez duela pantaila-efekturik sortzen, ez duela bistarik kentzen eta ez duela ertzetako espazio librerik murrizten.

Bosgarrenik, aipatu du ez dagoela inolako txostenik non adierazten den aldaketa-proposamena eta Getxoko HAPOn xedatutakoa bat datozenik.

Aurreko guztiarengatik, eskatu du bere alegazioak onesteko eta Getxoko Kirol Portuan hotel-erabileraren gaikuntza indargabetzeko, edo, subsidiarioki, espedientea atzera eramateko, honako hauek egite aldera: paisaia-integrazioko azterlana gehitzea, paisaia-kalitatearen helburuak sartzea plan bereziaren araudi-baldintzetan, egiaztatzea ez dela narriatzen kalitate-mota eta hauskortasuna ez dela gehitzen eta, hala badagokio, neurri konpentsatzailea definitzea, Getxoko HAPOrekin xehatutako hirigintza-bateragarritasunaren txostena egitea eta justifikatzea proposamenak ez duela pantaila-efekturik sortzen, ez duela bistarik kentzen eta ez duela ertzetako espazio librerik murrizten.

**ALEGAZIOARI ERANTZUTEKO TXOSTENA**

6. alegazioaren edukia oso-osorik 5. alegazioaren berdin-berdina da. Horrenbestez, azken alegazio horretarako erabiliko da 5. alegazioaren inguruan egindako txostena.

**BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PROPOSAMENA**

Aurkeztutako proposamena eskertuta, eta kontuan hartuta 6. alegazioa oso-osorik 5. alegazioaren berdin-berdina dela, azken alegazio honi aplikatuko zaio Bilboko Portuko Agintaritzak 5. alegazioari emandako erantzun-proposamena.

| **7. ALEGAZIOA** | |
|---|---|
| **ALEGATZAILEA** | GETXOKO PSE-EE (PSOE) SOZIALISTEN UDAL-TALDEA (CARMEN DÍAZ PÉREZ andreak ordezkatuta) |

**ALEGAZIOAREN LABURPENA**

Getxoko PSE-EE (PSOE) sozialisten udal-taldeak lehen alegazioan aipatu du Portuko Agintaritzak hotel-azpiegitura bat sortzeko aipatutako interes orokorra (hau da, Bilboko Portua ados egotea iberiar penintsula iparraldeko gurutzaontzien trafikorako portu nagusietako bat izatearekin, lehorreratzeko eta ontziratzeko portuetako eskalak gehitzearekin eta *home port* jarduera errazteko nahia izatea) ez dela inolaz ere interes orokorreko kausa bat eta portuko agintaritzaren nahi hutsa besterik ez dela, ontzi-enpresa nagusien beharrei erantzute aldera. Hau da, interes partikular eta enpresarial ageriko bati erantzuten diola. Gainera, esan du portuko lurzoruan xede horrekin hotela jartzeak gizarte-kaltea eragingo liekeela getxotarrei, zirkulazioa, trafikoa, zarata eta abar gehituko liratekeelako; gainera, ingurumen-kalteak ere sortuko lirateke ibilgailuen eta gurutzaontzien trafikoa ugaritzeagatik.

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 25 de 53

Bilboko Portuko Agintaritza | Autoridad Portuaria de Bilbao
Bulego Nagusien eraikina. Handitze Kaia| Edificio de Oficinas Generales: Muelle de la Ampliación, s/n, 48980 Santurtzi | Tel. +34 94 487 12 00
Egoitza ofiziala | Sede oficial: Elkano 11 48008 Bilbo | www.bilbaoport.eus

Esan du ez datorrela bat Eusko Jaurlaritzaren turismo eta merkataritzaren plan estrategikoarekin, BPAZPBren aldaketak ez baitu betetzen turismo jasangarriaren, arduratsuaren, etikoaren eta ingurumena errespetatzen duenaren eredua. Hala, aurrekoa ez da bateragarria gurutzaontzien turismo masiboarekin, inpaktu ekonomikoak eta ingurunekoak zona oso espezifikoetan kontzentratzen baititu.

Atal horretan alegatzaileak azaldu du BPAZPBren aldaketa idaztean herritarrek ez dutela parte hartu, alegazioen izapidetzeaz haratago. Hori beharrezkotzat jotzen dute nabaria denean, gainera, gizartea proiektuaren aurka dagoela.

Bukatzeko, aipatzen da BPAZPBren aldaketak ez duela jaso egin nahi den inbertsioaren ingurumen-, gizarte-, edo ondare-inpaktua. Horrenbestez, ezin dugu jakin Getxo udalerriari eta bertako biztanleei on edo kalte egiten dien.

Alegazio horiek hizpide hartuta, eskatu du indargabetu dadila BPAZPBren aldaketa puntualaren hasierako onespena eta, horrenbestez, kokapen horretan ez dadila hotelik eraiki.

## ALEGAZIOARI ERANTZUTEKO TXOSTENA

Lehenik eta behin, txosten honen aurrekarien inguruko ezinbesteko kontzeptu batzuk zehaztu behar ditugu: Bilboko Portua interes orokorrekoa da eta estatuarena da haren gaineko eskumena. Kalifikazio hori itsasoko merkataritza-jarduera garrantzitsuak egiten dituzten eta jarduera ekonomiko orokorraren oinarrizko beharrei erantzuten dieten merkataritza-portuei ematen zaie. Horretarako, portuetako sektore-legeriak jarduera horiek lehentasun-irizpideak betez garatzeko xedapenak jasotzen ditu. Aurrekoa interes orokorraren ondorioa da, bai estatuaren eskumena esleitzeko, bai eta hirigintza-administrazioaren eskumenen edukiaren irismenaren aldaketa kontrako zentzuan justifikatzeko, ondoren azalduko den moduan.

Plan bereziaren aldaketa idazteak Bilboko Portuko Agintaritzaren legezko interes bati erantzuten dio. Helburua *home port* jarduera garatzeko Getxon hotel-erabilera ezartzea ahalbidetzen duten baldintzak sustatzea da eta aurreko guztia bat etorriz portuko sektore-legeriaren xedapenekin. Izan ere, xedapen horiek erabilera hori berariaz jasotzen dute PEEM agirian portua-hiria interakziorako espazioetan.

Portuko zerbitzu-gunean garatuko diren erabilerak eta jarduerak zehazteari dagokionez, estatuaren eskumen esklusiboa da eta hauetan hezurmamitzen da: (i) ministerio-organoak portuko espazioen eta erabileren mugaketa (PEEM) onestea, (ii) zerbitzu-gunea nahitaez portuko sistema orokor gisa kalifikatzea, eta (iii) zerbitzu-gunearen antolamendurako plan bereziaren bitartez garatzea. Horrek berariaz arautzen du portuko sektore-araudia eta xedatzen du hirigintza-administrazioarekin desadostasunak sortuz gero, azken erabaki loteslea Ministroen Kontseiluak hartuko duela. Hala, irizpide bat aitortzen da eta horren arabera estatuak lehentasunezko interesa du Konstituzio Auzitegiak interes orokorreko portuen inguruan hartzen dituen erabakietan eta estatuaren interesa gailendu egingo zaio lurraldea antolatzeko autonomia-erkidegoko araubideari; azken horrek estatuaren eskumen horiek

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 26 de 53

erreespetatu behar ditu eta ez ditu oztopatu behar. Printzipio horiek berariaz jasota daude portuko sektore-araudian (EPMOLTBren 56. eta 59. artikuluak).

PEEMk portuko mugaketa gisa jokatzen du portuaren hirigintza-garapenaren aurretik eta portu-eremu barnean posible diren erabilerak zehazten ditu, erabilera horiek portukoak izan ala ez gorabehera. Bilboko Portuko PEEM onesten duen Ministerioaren Agindu hori (TRM 509/2024 Agindua, maiatzaren 10ekoa eta 2024ko uztailaren 23an ebazpen bidez onetsi zen aldaketa ez funtsezkoa) irmoa da. Beraz, ez dira zentzuzkoak kirol-portuaren espazio batzuei esleitutako “portua-hiria interakzioa” portukoa ez den erabilerari egindako kexak; erabilera hori berariaz jasota dago portuko jabari publikoaren arauaren 69. artikuluan.

Portuko erabilerak PEEMren edukiaren parte gisa zehazteak baldintzatu edo aldatu egiten du eraginpeko administrazioen lurralde-antolamendurako eta hirigintzarako eskumenen edukia. Beste alde batetik, eskumen horiek egikaritzen dituzte administrazioek plan bereziaren edo portuko zerbitzu-gunea antolatzen duen tresna baliokide baten bidez. Plan berezia edo tresna hori diseinatuta dago “portuko espazioan eskumen aldiberekoa duten administrazioen arteko beharrezko koordinazioa egituratzeko” Konstituzio Auzitegiak agindutako baldintzak betez (Konstituzio Auzitegiaren 77/84 Epaia, 1. eta 3. oinarri juridikoak, Konstituzio Auzitegiaren 40/98 Epaia, 12.,17., 30. eta 35. oinarri juridikoak, eta Konstituzio Auzitegiaren 63/23 Epaia). Horrenbestez, ezin dute portuko ustiapen-eskumenak egikaritzea oztopatzen edo eragozten duten zehaztapenik ezarri. Aurrekoa interes orokorraren ondorioa da, bai estatuaren eskumena esleitzeko, bai eta hirigintza-administrazioaren eskumenen edukiaren irismenaren aldaketa kontrako zentzuan justifikatzeko ere.

Egiaz, soilik estatuaren eskumenekoak diren portuen erreserba interes orokorrean oinarrituta dago eta Espainiako portu-sistema osoan bere funtzioak duen arretari erreparatuz kontuan hartu beharra dago (Konstituzioaren 149.1.20ª artikulua, Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia, 17. oinarri juridikoa eta EPMOLTBren 2.5 eta 4. artikuluak). Bilboko Portua horrela aitortuta dago Estatuko portuen eta merkataritzako ontzidiaren legearen testu bategina onesten duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintza Errege Dekretuaren I. eranskinean. Horrenbestez, Bilboko Portuaren gaineko eskumen esklusiboa Estatuko Administrazio Nagusiak du (EPMOLTBren 11. artikulua) eta Portuko Agintaritzari dagokio autonomia-araubidean kudeatzea eta Estatuko Portuei dagokie portuko sistemaren efizientzia koordinatzea eta kontrolatzea (EPMOLTBren 13. artikulua).

Kudeaketa bateratuaren printzipioa portuko testuaren 3.6 artikuluan jasota dago gaur egun eta Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaiaren 12. oinarri juridikoak hau dio printzipio horren inguruan: *«Eskumen hori portuko errealitate fisikoan eta portuko jardueran hedatzen da». Espazio horretan abiapuntua da «estatuak portuko zerbitzu-gune osoa eskuragarri izateko ahala duela», eta modu horretan, «ez da eskumenik esleitzen portuko jarduera-mota batzuen inguruan, baizik eta portuaren gainean, bere horretan...portuko errealitate fisikoaren gaineko eskumena da eta bertan garatzen den jardueraren gainekoa ere bai» eta horrek ez du eragozten errealitate horren gainean «bestelako eskumen-tituluek eragin ahal izatea (besteak beste, hirigintzakoek edo lurralde-antolamendukoek)».*



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 27 de 53

Bilbao PORT

Azken finean, estatuaren eskumen esklusiboak ahalbidetu egiten du legez autonomia-erkidegoek lurralde-antolamenduan eta hirigintzan dituzten eskumenak baldintzatzea (Konstituzio Auzitegiaren 149/1991 eta 36/1994 Epaiak).

Eskumen horiek egikarituz Bilboko Portuko Agintaritzaren kide anitzeko gobernu-organoak, indarreko plan estrategikoa aintzat hartuta, onetsi egin zuen Getxo udalerrian zerbitzu-gunearen plan bereziaren aldaketa idaztea plana PEEMra egokitze aldera. Horretarako, Getxoko Kirol Portuan hotel bat ezartzeko aukeraren hirigintza-aurreikuspena sartu zuen, baina inolaz ere ez proiektu zehatz bat. Errepikatzen dugu ez dela horrelako proiekturik existitzen eta portuko sektore-araudiaren xedapenekin bat etorriz jardun zen, hauek kontuan hartuta: Bilboko Portuak kokapen aldekoa du, iberiar penintsula iparraldeko portu nagusietako bat baita gurutzaontzien trafikoan, eskalak gehitu dira gurutzaontzietako bidaiariak ontziratzeko eta lehorreratzeko portu gisa eta horrelako trafikoetarako *home port* jarduera promozionatu da. Hala, portuko zerbitzu eta azpiegitura diferentzialen eskaintza indartu da eta horrelako trafikoetan hazkunde-aukerak sortuko dituzte, era berean, lurralderako balio-sorkuntza maximizatuz.

Azken adierazpen horrek portuko eta lurralde osoko interesaren irismena adierazten du. Izan ere, *home port* jarduera garrantzitsua da bidaiarien trafikoa sortzeaz haratago, gurutzaontzietarako abiapuntu eta azken helmuga gisa kokatzen baita eta bidaiariek bertan hasten eta bukatzen baitituzte bidaiak. Hau da, ez da eskalak egiteko portua. Horren ondorioz jarduera logistikoak eta zerbitzuak egiten dira, bai ontzirako bai bidaiarientzako ere, hala nola: pertsonak ontziratzea eta lehorreratzea, erregaia eta elikagaiak hornitzea, portuan aisialdi- eta merkataritza-jarduerak egitea eta hasiera batean tokiko eta lurraldeko enpresek bidaien beharrak estaltzeko emango lituzketen hornidurak eta jarduerak. Horrek guztiak lurralderako onuragarriak diren eskala-ekonomiak sortzen ditu.

BPAZPB egokitzeak (hotel-erabilerak BPAZPBra moldatzeko) ez du nahitaez esan nahi hotela ezarriko denik, soilik aukera hori ikusgai egiten du eta ez du halabeharrez zehazten hotela ezartzeko beharrik ezta obligaziorik dagoenik. Edonola ere, etorkizunean hotel-proiektu bat aurkezten baldin bada Ministroen Kontseiluak indargabetu egin beharko du hotel-erabileraren debekua eta aurretik Estatuko Portuek txostena egin beharko dute, berariaz BPAZPBren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen 20.2 artikuluan jasota dagoen bezala.

Horren inguruan zehaztu beharra dago EPMOLTBren 72. artikuluak berariaz xedatzen duela posible dela ez-ohiko kasuetan portuko jabari publikoan hotel-erabileretarako eraikuntzak onartzea. Hala eta guztiz ere, aukera hori ez da librea eta baldintza batzuk bete behar ditu. Modu horretan, legeak dio horrelako erabilerak eta xedeak bat datozela portu-erabilerekin, betiere, hotel-erabileraren debekua indargabetzeko arauaren baldintzak betetzen badira.

Gainera, portuko jabari publikoaren kudeaketaren araudiaren xedea —interes orokorra bermatuz— da portuko instalazioak finantzatzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko ekimen pribatuaren parte-hartzea sustatzea eta gehitzea, baita zerbitzu-prestazioetan ere. Horretarako, baimenak eta emakidak ematen dira eta errentagarritasun- eta efizientzia-irizpideak aplikatzen dira, berariaz EPMOLTBren 66. artikuluan jasota dagoen bezala.



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 28 de 53

| |
|---|
| Azaldutako guztiarengatik ez dugu uste beharrezkoa denik sustatutako neurria autonomia-erkidegoko turismoaren eta merkataritzan plan estrategikoarekin bat etortzea. Izan ere, alde batetik, BPAZPB aldatzeak portuko interes bati erantzuten dio lurraldearen garapen ekonomikoa eta turistikoa gauzatzeko eta herritarrak bat datoz horrekin, albo batera utzi gabe alegatzaile batzuek eraikuntza-proiektuaren behin betiko konfigurazioaren inguruan azaldutako kezkak. Beste alde batetik, organo eskudunak urtarrilaren 20ko 995/2025 Foru Aginduan zehaztutako ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak behar bezala aintzat hartu dira eta plan bereziaren aldaketaren hirigintza-arauetan sartu dira.<br><br>Horren inguruan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurune Naturala eta Nekazaritza Zaintzeko Sailak izapidetzen ari diren BPAZPBren aldaketa puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin du. Aurretik eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsultatzeko izapidetzea egin zen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean jendaurrean erakusteko izapidea ere bete zen. Gainera, ondoren ingurumen-txosten estrategikoa bidali zen 2025eko urtarrilaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako urtarrilaren 20ko 995/2025 Foru Aginduaren bitartez. Onetsitako ingurumen-agiri horretan izapidetzen ari den plana analizatzen da ingurumen-ebaluazioaren araudian ezarritako irizpideak aintzat hartuta eta zehazten du proposamenak ez duela ondorio garrantzitsurik ingurumenean, betiere, txosteneko baldintzak betetzen badira. Baldintza horiek behar bezala jaso dira BPAZPBren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen zehaztapenetan (12. eta 14. artikuluak, memoriaren I. eranskina eta 10.3 puntua).<br><br>Bukatzeko, alegatutako herritarren partaidetzari dagokionez, ez dago esku-hartze publiko horren gabeziarik 2/2006 Legearen 8. artikuluko xedapen orokorrekin eta aplikatzekoa den gainerako araudiarekin bat etorriz. Horren froga dira, besteak beste, ingurumen-izapidetzean egin zen aurretiazko jendaurreko izapidetzea eta tramitatzen ari den BPAZPBren aldaketa puntualean sortu den informazio publikoko izapidetze hau. Zortzi alegazio jaso ditugu eta horiei esker BPAZPBren aldaketaren hirigintza-arauen edukia aldatzea posible izango da. |
| **BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PROPOSAMENA** |
| Aurkeztutako proposamena eskertu eta gero, alegazio hau ezestea proposatzen dugu. Izan ere, alegazioaren alderdi batek ere ez du behar besteko araudi-oinarririk Getxoko Kirol Portuan hotel-erabilera ezartzearen aukera ezabatzeko, ezta ere egindako ingurumen- eta paisaia-analisia eta horren inguruan BPAZPBren aldaketa puntualak ezarri dituen zehaztapenak aldatzeko. |

| **8. ALEGAZIOA** | |
|---|---|
| **ALEGATZAILEA** | IGNACIO BASAÑEZ ALFONSO JAUNA, ASOCIACIÓN DE AMARRISTAS Y COMERCIANTES GETXO KIROL PORTUA GKP elkartearen presidente gisa (Pilar Ochoa Gomez andreak ordezkatuta) |
| **ALEGAZIOAREN LABURPENA** | |



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 29 de 53

Bilbao PORT

Asociación de Amarristas y Comerciantes Getxo Kirol Portua GKPk lehenik eta behin aipatu du Bizkaiko Foru Aldundiak ez duela eskumenik martxan dagoen plan bereziaren aldaketa izapidetzeko eta onesteko. Izan ere, egungo lege-esparruak hizpide ditugun tresnak izapidetu eta onesteko eskumena udal-administrazioari ematen dio, eta ez Bizkaiko Foru Aldundiari, salbu eta zenbait udalerriri eragiten dienean eta beraien artean desadostasunak daudenean.

Bigarrenik, adierazi du ekimena ez dela bideragarria, ezarriko den erabilera debekatuta baitago Getxoko HAPOn. Horrekin lotuta, argudiatu du portuko legeria hirigintza-legeriaren aurrean lehenestea ez dela portuko zerbitzu-espazio guztietara zabaltzen, baizik eta soilik zorrozki portukoak direnetara edo portu-erabilerei lotuta daudenetara. Horregatik ulertzen da kasu honetan portuko lursailak birkalifikatuko direla beste erabilera bat emateko eta beti egongo dela lotuta portua-hiria interakzioari. Hala, erabakia hartzea eskuduna den hirigintza-administrazioari dagokio (Auzitegi Gorenaren Epaiak, 2021-06-09 eta 2009-04-01, eta Kataluniako Justizia Auzitegi Gorenaren Epaia, 2025-02-12).

EPMOLTBren 72. artikulua kopiatu eta gero alegatzaileak ondorioztatu du portuko jabari publikoan "portua-hiria interakzioari" lotutako erabileretarako espazioak onartzeko aukera betetzeko, aurretiaz premisa bat bete behar dela; erabilera horiek ez dute portuko trafikoa eta garapena kaltetu behar eta hirigintza-plangintza bete behar dute, hau da, Getxoko HAPO.

Hirugarrenik, azaldu du plan bereziaren eta PEEMren xedapenak bat ez etortzekotan plan berezia berrikusi beharko litzatekeela. Horrela, konpondu egingo litzateke portu autonomo osoari eragiten dion koordinaziorik eza. Hala, uste du lortu nahi den benetako arrazoi bakarra dela ordenamendu juridikoa ezabatzea eta ahalbidetzea Getxoko kirol-portuan hotel bat eraikitzea.

Ondoren azaldu du arazoa dela ez dagoela daturik babesten duenik beharrezkoa dela edo komeni dela kokapen horretan hotel-erabileraren debekua indargabetzea.

Datu deigarri moduan aipatu du HAPOren berrikuspen-prozesuan memoria eta/edo txosten batean ere ez dela aipatzen beharrezkoa denik udalerriko turismo-ostatuen eskaintza gehitzea. Gainera, Bilboko Portuko Agintaritzak HAPO berrikustean eman dituen txostenetan ez du esan beharrezkoa eta/edo interesekoa denik gurutzaontzien terminalerako eskaintza gehitzea ezta Igeretxe hotelaren edukiera handitzea (azken hori Bilboko Portuko Agintaritzaren jabetzakoa da).

Gehitu du Bilboko Portuko Agintaritzaren 2023-2026 urteetarako plan estrategikoan portuak bere eraginpeko gunean sortzen duen inpaktua maximizatzeko xedatutako helburu eta/edo ekintza batek ere ez duela zerikusirik gurutzaontzi-jarduerarekin ezta gurutzaontzien terminalaren inguruan ostatu-gabeziei erantzuteko aukerarekin.

Horri dagokionez ondorioztatu du BPAZPBren aldaketak interes pribatu bati erantzuten diola; zehazki, "Abra Getxo Port SL" elkarte ustiatzailearen interesari (2023an adjudikatutako emakida bideratzea) eta ontzi-enpresa nagusien eskakizunei erantzuten zaiela, hau da, Getxoko gurutzaontzien terminaletik gertu hotel-azpiegitura egoki bat izatea.

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 30 de 53

| |
|---|
| Alegazio horiekin bat etorriz, eskatu du artxibatu dadila BPAZPBren aldaketa puntualaren espedientea. |
| **ALEGAZIOARI ERANTZUTEKO TXOSTENA** |
| Bilboko Portuko Agintaritzak erantzun-txosten honetako aurrekariak ematen ditu erreferentziatzat. Aurrekarien edukia zehatz eta mehatz aipatzen da eta ez dugu errepikatuko, prozesu-ekonomiarengatik.<br><br>Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena falta duela dioen alegazioari dagokionez, badirudi eskumena duen hirigintza-agintaritza (EPMOLTBren 56. artikuluan aipatzen dena) dela alegatzailea nahastu duena.<br><br>Portuko zerbitzu-gunea antolatzeko plan berezia hirigintza-tresna bat da eta portuko sektore-lege batean xedatuta dago udalaz gaindiko portuko sistema orokor bat garatzeko. Hala, bere izaera, garrantzia, kudeaketa bateratuaren printzipioa eta baterako zerbitzu-prestazioa direla-eta udalerri bakar baten eremutik haratago doa. Berezitasun hori hirigintza-artikulaziorako estatuko eskumenekoa den eremu material baten sektore-plana eratzen duen agiri baten izapidetzearen arauketa berezian islatzen da. Hori idaztea Bilboko Portuko Agintaritzari dagokio sustatzailea den heinean eta berau onestearen helburua da ziurtatzea plangintza koordinatua eta efizientea dela Bizkaiko egituran ezinbestekoa den azpiegitura baterako.<br><br>Auzitegi Gorenak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko 550/2008 auzi-errekurtsoaren aurkako 6109/2010 kasazio-errekurtsoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko 840/2009 auzi-errekurtsoaren kontra egin zen 3906/2011 kasazio-errekurtsoan berariaz xedatu zuen zuzenbidearen aurkakoa dela plan berezia edo planaren aldaketak udal bakoitzak partzialki izapidetzea Portuko Agintaritzak mugatutako esparru fisikoaren barnean dagoen lurralde propioa kontuan hartuta, eta aurrerago azalduko dugun moduan, irizpide hori oinarritzen dute Konstituzio Auzitegiaren erabakiek; halaber, Justiziako Auzitegi Gorenen bestelako ebazpenetan ere jaso dira, bereziki, hauetan: Kantabriako Justizia Auzitegi Gorenaren azaroaren 18ko 589/2013 Epaia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren urriaren 27ko 473/2025 Epaia.<br><br>Aurrekoa kontuan hartuta, indarrean dagoen portuko zerbitzu-gunea antolatzeko plan bereziaren onespena eta aldaketa puntualak Bizkaiko Foru Aldundiak onetsi zituen aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko araudia betez. Hala, ikuspegi bakarra eta orokorra txertatu zuen, eta, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuarekin bat etorriz, hori ezin izango litzateke egin udalerri bakoitzak bereizita txertatuko balitu interes orokorrekoa den Bilboko Portuari buruzko irizpide ezberdinak. Aurrekoaz gain, ingurumen-ebaluazioaren prozedura dekretu horretan eratzen da administrazio-prozedura instrumental gisa eta planak onesteko sektoreko prozedurarekiko inkardinatuta dago. Horrenbestez, hirigintza-plana onesteko prozedura abiapuntutzat hartuta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduran txertatzen da. Integrazio hori hirigintza-arauetan eta BPAZPBren aldaketaren dokumentazioan bete da, ondoren adieraziko den moduan. |



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 31 de 53

Egiaz, autonomia-erkidegoaren hirigintza-eskumena konstituzioan aitortuta dago (148.1.3 artikulua) eta bere irismena Konstituzio Auzitegiaren 61/1997 Epaian deskribatuta dago. Hala ere, hirigintza-agintaritza ez da toki-agintaritza eta ez da bakarrik plangintza orokorraren bitartez egikaritzen. Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaiaren 39. oinarri juridikoan azaldu zen bezala, konstituzioaren 137. artikulutik 140. artikulura xedatutako toki-autonomia berme instituzionala da eta gutxieneko eduki bat du eta legegileak errespetatu egin behar du. Hala, hauxe azpimarratzen da: *«Udalerrien intereseko gaien artean (horrenbestez, horien gaineko eskumenak dituzte) hirigintza dago. Halaxe xedatu du estatuko legegileak. Izan ere, Toki-araubidearen oinarrien legearen 25.2 d) artikuluan xedatzen du udalerriak bere eskumenak egikarituko dituela " hirigintzaren antolamendu, kudeaketa, egikaritze eta diziplinaren arloetan". Gainera, lege beraren 84.1 b) artikuluan xedatuta dago herritarren jarduueretarako "aurretik lizentziak emango direla eta bestelako prebentzio-kontroleko ekimenak egingo direla". Hala eta guztiz ere, xedapen horretatik ez da ondorioztatu udal-mugartean egin beharreko obretarako salbuespenik gabe hirigintza-lizentzia eman behar denik. Nahikoa da udalerriak txosten baten bidez esku-hartzea eta azaltzea obrek kasu batzuetan bete egiten dutela portuko espazioaren antolamendurako plan berezia».*

Hortaz, Konstituzio Auzitegiaren ustez toki-autonomia bete egiten da udalak txostena egiten duenean eta/edo ekipamendu konkretu baterako udal-lizentzia ematen denean. Baina inolaz ere ez da beharrezkoa plangintza udal-eskumenekoa izatea. Hirigintza-agintaritza eskuduna da baita ere autonomia-erkidegoa (eta gure kasuan Bizkaiko Foru Aldundia), Bizkaian udalaz gaindiko portuko sistema orokorra baita aplikatzekoa den hirigintza-araudia betez.

Eta hala da; Bilboko Portuko zerbitzu-gunearen antolamendurako indarreko plan berezia eta geroago egin ziren bi aldaketa puntualak Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunaren ebazpenekin onetsi ziren, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. artikuluaren 5. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio lurralde- eta hirigintza-antolamendurako tresnak onestea maila altuagoa duten plangintzak eta sektore-plangintzak garatzen direnean bere lurralde-eremuan.

Onesteko eskumen hori plan bereziaren aldaketetarako ere badu, albo batera utzita aldaketak udalerri bati edo gehiagori eragitea. Izan ere, aldaketak estatuko administrazio orokorrak interes orokorreko portuen inguruan dituen eskumenak betez egindako portuko lurralde-antolamendurako tresna bati eragiten dio irailaren 5eko 2/2011 Legegintza Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Estatuko portuen eta merkataritzako ontzidiaren legearen testu bateginaren azken xedapenetatik lehenengoarekin bat etorriz. Horretaz gain, xedea portuko zerbitzu-gunea garatzea da. Gune horren eskumena Bilboko Portuko Agintaritzarena da eta udalaz gaindiko izaerarekin udalerri batzuk zeharkatzen ditu. Horren definizioa eta lurralde-eremua eta erabileren esleipena zorrozki portuarena den eskumena da eta aipatutako sektore-araudi espezifikoak arautzen du.

Aurreko guztia dela-eta, albo batera utzita garrantzitsua dela aurretik interes orokorreko portuetarako Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan agindutako foru-ebazpenek



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 32 de 53

aurreko baieztapena frogatzea, alegazio batzuek ez dute lege-oinarririk. Zehazki, zalantzan jartzen dutenek foru-organoak eskumena duela Getxoko kirol-portuari eragiten dion plan bereziaren aldaketa puntuala behin-behinean eta behin betiko onesteko. Aurreko guztia udalaz gaindiko agiriaren izaera eta xedea aintzat hartuta eta jakinik koherentzia-, arrazionaltasun-, eta lehentasun-irizpideak bete behar dituela eta garatzeko segurtasun juridikoa izan behar duela. Izan ere, hirigintza-tresnak soilik sektorekoa den osagai bat du eta zerbitzu-gunearen antolamendurako plan berezia edo bere aldaketa eraginpeko udalerriek onetsi dezaketela dioen hipotesiak erabateko deuseztasuna dakarren legezkotasun-akatsaren arriskuan jarriko luke, 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horren inguruan dihardu bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren irailaren 16ko 573/2009 Epaiak. 7. oinarri juridikoan ahalbidetu egiten du 2/2006 Legeak aipatzen dituen planetan baztertuta dagoen portuko antolamendurako plan bereziaren berezitasuna ezartzea. Bere aldetik, alegatzaileak aipatu duen Auzitegi Gorenaren 2001eko ekainaren 9ko Epaia ez da aplikatu behar toki-administrazioak jarduera-lizentzia emateko eskumena aitortzen baitu, eta ez portuko plan berezia onesteko eskumena.

Horrenbestez, portua antolatzeko plan bereziaren izapidetzea eta onespena lurraldearen hirigintza- eta antolamendu-legerian xedatutakoarekin bat etorriz egingo du hirigintzan eskuduna den administrazioak, Estatuko portuen legearen testu bateginaren 56.2 b) artikulua betez. Hala eta guztiz ere, muga batzuk izango ditu bermatzeko hauekiko koordinazioa badagoela: (i) bere edukia (estatuko portuen zerbitzu-gunea portuko sistema orokor gisa kalifikatzea); eta (ii) bere izapidetzea (bai idazketa-fasean, Portuko Agintaritzari dagokiona, bai eta behin betiko onespenean ere, Ministroen Kontseiluaren txosten loteslea, portuko agintaritza kontra agertu eta gero). Koordinazio-teknika horiek konstituzioa betetzen dutela aztertu da jada eta Konstituzio Auzitegiaren ebazpenen bitartez baieztatu da.

Azaldutakoa babesteko txosten honen III. eranskin gisa atxiki da Bizkaiko Estatuko Abokatutzak egindako txostena. Txosten horrek ebidentzien bidez eta zalantzarik gabe baieztatzen du foru-organoak eskumena duela BPAZPBren aldaketa puntuala onesteko.

Ezarriko den erabilera bideragarria ez izateari dagokionez (Getxoko HAPOren aurkakoa delako), berriro ere azaltzen dugu portuko sektore-araudiak eskatzen duela hirigintza-antolamenduko planek zerbitzu-gunea portuko sistema orokor gisa kalifikatu behar dutela. Gainera, ez da posible portua ustiatzeko eskumenak oztopatzen edo eragozten dituzten zehaztapenak ezartzea, albo batera utzita portuan egiten den jarduera. Aurreko guztia kudeaketa-batasunaren printzipioa betez eta aplikatzekoa den sektore-araudia errespetatuz.

Aurrekoari gagozkiola, Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia irakurrita argi geratzen da portu-espazioaren hirigintza arautzeko tresna egokia eta nahitaezkoa plan berezia dela, esleitutako erabilera edozein izanda ere, bai portu-erabileretarako bai eta EPMOLTBk baimendutako eta PEEM agirian ezarritako portukoak ez diren erabileretarako ere. Hala, nahikoa da HAPOn portuko zona portuko sistema orokor gisa xedatzea. EPMOLTBren 69. eta 72. artikuluek berariaz xedatzen dituzte portukoak ez diren eta portua-hiria interakzioari lotuta dauden erabilerak; erabilera horiek hirigintza-



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 33 de 53

arauketa izan beharko dute portuko plan bereziaren bitartez. Portukoak ez diren erabilerak PEEMn ezartzen dira portu-gune barnean eta, beraz, ez da eztabaidatu behar portu-araudia lehenesten dela udalaren HAPOren aurretik.

Horrela da, EPMOLTBren 72. artikuluak berariaz xedatzen du posible dela ez-ohiko kasuetan portuko jabari publikoan hotel-erabileretarako eraikuntzak onartzea. Hala eta guztiz ere, aukera hori ez da librea eta baldintza batzuk bete behar ditu. Modu horretan, legeak dio horrelako erabilerak bat datozela portu-erabilerekin, betiere, aipatutako araudiko baldintzak betetzen badira.

Portuko zerbitzu-gunean garatuko diren erabilerak eta jarduerak zehazteari dagokionez, estatuaren eskumen esklusiboa da eta hauetan hezurmamitzen da: (i) ministerio-organoak portuko espazioen eta erabileren mugaketa (PEEM) onestea, (ii) zerbitzu-gunea nahitaez portuko sistema orokor gisa kalifikatzea, eta (iii) zerbitzu-gunearen antolamendurako plan bereziaren bitartez garatzea. Horrek berariaz arautzen du portuko sektore-araudia eta xedatzen du hirigintza-administrazioarekin desadostasunak sortuz gero, azken erabaki loteslea Ministroen Kontseiluak hartuko duela. Hala, irizpide bat aitortzen da eta horren arabera estatuak lehentasunezko interesa du Konstituzio Auzitegiak interes orokorreko portuen inguruan hartzen dituen erabakietan eta estatuaren interesa gailendu egingo zaio lurraldea antolatzeko autonomia-erkidegoko araubideari; azken horrek estatuaren eskumen horiek errespetatu behar ditu eta ez ditu oztopatu behar. Printzipio horiek berariaz jasota daude portuko sektore-araudian (EPMOLTBren 56. eta 59. artikuluak).

PEEMk portuko mugaketa gisa jokatzen du portuaren hirigintza-garapenaren aurretik eta portu-eremu barnean posible diren erabilerak zehazten ditu, erabilera horiek portukoak izan ala ez gorabehera. Bilboko Portuko PEEM onesten duen Ministerioaren Agindu hori (TRM 509/2024 Agindua, maiatzaren 10ekoa eta 2024ko uztailaren 23an ebazpen bidez onetsi zen aldaketa ez funtsezkoa) irmoa da. Beraz, ez dira zentzuzkoak kirol-portuaren espazio batzuei esleitutako “portua-hiria interakzioa” portukoa ez den erabilerari egindako kexak; erabilera hori berariaz jasota dago portuko jabari publikoaren arauaren 69. artikuluan.

Portuko erabilerak PEEMren edukiaren parte gisa zehazteak baldintzatu edo aldatu egiten du eraginpeko administrazioen lurralde-antolamendurako eta hirigintzarako eskumenen edukia. Beste alde batetik, eskumen horiek egikaritzen dituzte administrazioek plan bereziaren edo portuko zerbitzu-gunea antolatzen duen tresna baliokide baten bidez. Plan berezia edo tresna hori diseinatuta dago “portuko espazioan eskumen aldiberekoa duten administrazioen arteko beharrezko koordinazioa egituratzeko” Konstituzio Auzitegiak agindutako baldintzak betez (Konstituzio Auzitegiaren 77/84 Epaia, 1. eta 3. oinarri juridikoak, Konstituzio Auzitegiaren 40/98 Epaia, 12.,17., 30. eta 35. oinarri juridikoak, eta Konstituzio Auzitegiaren 63/23 Epaia). Horrenbestez, ezin dute portuko ustiapen-eskumenak egikaritzea oztopatzen edo eragozten duten zehaztapenik ezarri. Aurrekoa interes orokorraren ondorioa da, bai estatuaren eskumena esleitzeko, bai eta hirigintza-administrazioaren eskumenen edukiaren irismenaren aldaketa kontrako zentzuan justifikatzeko ere.

Aurrekoa interes orokorraren ondorioa da, bai estatuaren eskumena esleitzeko, bai eta hirigintza-administrazioaren eskumenen edukiaren irismenaren aldaketa kontrako zentzuan justifikatzeko.

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 34 de 53

Bilbao PORT

Beraz, ez dago aipatutako interes orokorraren faltarik. Izan ere, soilik estatuaren eskumenekoak diren portuen erreserba interes orokorrean oinarrituta dago eta Espainiako portu-sistema osoan bere funtzioak duen arretari erreparatuz kontuan hartu beharra dago (Konstituzioaren 149.1.20ª artikulua, Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaia, 17. oinarri juridikoa eta EPMOLTBren 2.5 eta 4. artikuluak). Horrela deklaratu zen Bilboko Portua Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko legearen testu bategina onetsi duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean.

Bilboko Portuaren gaineko eskumen esklusiboa estatuko administrazio orokorrarena da (EPMOLTBren 11. artikulua) eta Portuko Agintaritzari dagokio autonomia-araubidean portua kudeatzea eta Estatuko Portuei dagokie portu-sistema koordinatzea eta efizientzia kontrolatzea (EPMOLTBren 13. artikulua).

Kudeaketa bateratuaren printzipioa portuko testuaren 3.6 artikuluan jasota dago gaur egun eta Konstituzio Auzitegiaren 40/1998 Epaiaren 12. oinarri juridikoak hau dio printzipio horren inguruan: *«Eskumen hori portuko errealitate fisikoan eta portuko jardueran hedatzen da». Espazio horretan abiapuntua da «estatuak portuko zerbitzu-gune osoa eskuragarri izateko ahala duela», eta modu horretan, «ez da eskumenik esleitzen portuko jarduera-mota batzuen inguruan, baizik eta portuaren gainean, bere horretan...portuko errealitate fisikoaren gaineko eskumena da eta bertan garatzen den jardueraren gainekoa ere bai» eta horrek ez du eragozten errealitate horren gainean «bestelako eskumen-tituluek eragin ahal izatea (besteak beste, hirigintzakoek edo lurralde-antolamendukoek)».*

Azken finean, estatuaren eskumen esklusiboak ahalbidetu egiten du legez autonomia-erkidegoek lurralde-antolamenduan eta hirigintzan dituzten eskumenak baldintzatzea (Konstituzio Auzitegiaren 149/1991 eta 36/1994 Epaiak).

Eskumen horiek egikarituz Bilboko Portuko Agintaritzaren kide anitzeko gobernu-organoak, indarreko plan estrategikoa aintzat hartuta, onetsi egin zuen Getxo udalerrian zerbitzu-gunearen plan bereziaren aldaketa idaztea plana PEEMra egokitze aldera. Horretarako, Getxoko Kirol Portuan hotel bat ezartzeko aukeraren hirigintza-aurreikuspena sartu zuen, baina inolaz ere ez proiektu zehatz bat. Errepikatzen dugu ez dela horrelako proiekturik existitzen eta portuko sektore-araudiaren xedapenekin bat etorriz jardun zen, hauek kontuan hartuta: Bilboko Portuak kokapen aldekoa du, iberiar penintsula iparraldeko portu nagusietako bat baita gurutzaontzien trafikoan, eskalak gehitu dira gurutzaontzietako bidaiariak ontziratzeko eta lehorreratzeko portu gisa eta horrelako trafikoetarako *home port* jarduera promozionatu da. Hala, portuko zerbitzu eta azpiegitura diferentzialen eskaintza indartu da eta horrelako trafikoetan hazkunde-aukerak sortuko dituzte, era berean, lurralderako balio-sorkuntza maximizatuz.

Portuko organismoak esandakoa argia da eremu horretan hotel-erabilera ezartzeko interesari dagokionez, albo batera utzita behin betiko ezartzeko, hotel-proiektu jakin bat egin beharraz gain, Ministroen Kontseiluaren aurretiazko erabakia beharko litzatekeela.

Horrek portuko eta lurralde osoko interesaren irismena adierazten du. Izan ere, *home port* jarduera garrantzitsua da bidaiarien trafikoa sortzeaz haratago, gurutzaontzietarako abiapuntu eta azken helmuga gisa kokatzen baita eta bidaiariek



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 35 de 53

bertan hasten eta bukatzen baitituzte bidaiak. Hau da, ez da eskalak egiteko portua. Horren ondorioz jarduera logistikoak eta zerbitzuak egiten dira, bai ontzirako bai bidaiarientzako ere, hala nola: pertsonak ontziratzea eta lehorreratzea, erregaia eta elikagaiak hornitzea, portuan aisialdi- eta merkataritza-jarduerak egitea eta hasiera batean tokiko eta lurraldeko enpresek bidaien beharrak estaltzeko emango lituzketen hornidurak eta jarduerak. Horrek guztiak lurralderako onuragarriak diren eskala-ekonomiak sortzen ditu.

BPAZPB egokitzeak (hotel-erabilerak BPAZPBra moldatzeko) ez du nahitaez esan nahi hotela ezarriko denik, soilik aukera hori ikusgai egiten du eta ez du halabeharrez zehazten hotela ezartzeko beharrik ezta obligaziorik dagoenik. Edonola ere, etorkizunean hotel-proiektu bat aurkezten baldin bada Ministroen Kontseiluak indargabetu egin beharko du hotel-erabileraren debekua eta aurretik Estatuko Portuek txostena egin beharko dute, berariaz BPAZPBren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen 20.2 artikuluan jasota dagoen bezala.

Horren inguruan zehaztu beharra dago EPMOLTBren 72. artikuluak berariaz xedatzen duela posible dela ez-ohiko kasuetan portuko jabari publikoan hotel-erabileretarako eraikuntzak onartzea. Hala eta guztiz ere, aukera hori ez da librea eta baldintza batzuk bete behar ditu. Modu horretan, legeak dio horrelako erabilerak eta xedeak bat datozela portu-erabilerekin, betiere, hotel-erabileraren debekua indargabetzeko arauaren baldintzak betetzen badira.

Alegazio batek dio BPZAPBren aldaketa puntualak interes pribatu bati erantzuten diola. Horri dagokionez aipatu beharra dago portuko jabari publikoaren kudeaketaren araudiaren xedea —interes orokorra bermatuz— dela portuko instalazioak finantzatzeko, eraikitzeko eta ustiatzeko ekimen pribatuaren parte-hartzea sustatzea eta gehitzea, baita zerbitzu-prestazioetan ere. Horretarako, baimenak eta emakidak ematen dira eta errentagarritasun- eta efizientzia-irizpideak aplikatzen dira, berariaz EPMOLTBren 66. artikuluan jasota dagoen bezala.

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurune Naturala eta Nekazaritza Zaintzeko Sailak BPZAPBren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin du. Aurretik eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsultatzeko izapidetzea egin zen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean jendaurrean erakusteko izapidea ere bete zen. Gainera, ondoren ingurumen-txosten estrategikoa bidali zen 2025eko urtarrilaren 29ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako urtarrilaren 20ko 995/2025 Foru Aginduaren bitartez. Onetsitako ingurumen-agiri horretan izapidetzen ari den plana analizatzen da ingurumen-ebaluazioaren araudian ezarritako irizpideak aintzat hartuta eta zehazten du proposamenak ez duela ondorio garrantzitsurik ingurumenean, betiere, txosteneko baldintzak betetzen badira. Baldintza horiek behar bezala jaso dira BPAZPBren aldaketa puntualaren hirigintza-arauen zehaztapenetan (12. eta 14. artikuluak, memoriaren I. eranskina eta 10.3 puntua).

**BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN PROPOSAMENA**

Aurkeztutako proposamena eskertzen dugu, baina alegazio hori ezestea proposatzen dugu. Izan ere, alegazioan jasotako alderdi batek ere ez du araudi-oinarri nahikorik BPZAPBren aldaketa puntuala baztertzeko eta espedientea artxibatzeko.



Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 36 de 53

# 4.- ONDORIOAK ETA ESKAERA

Bilboko Portuko Agintaritzaren iritziz alegazioei buruzko txosten honetan behar beste justifikatu da Bilboko Portuko Agintaritzak gaitasuna, legitimazioa eta eskumena dituela Getxoko kirol-portuan *portua-hiria interakzioa* erabilera-gunearen barnean hotel-erabilera sartzeko. Gainera, erabilitako tresna egokia izateaz gain, indarreko legeria betetzen du. Hori gutxi balitz, BPAZPBren aldaketa puntualaren espedientea izapidetu denean errespetatu egin dira indarreko portuko, hirigintzako eta ingurumeneko legeak.

Bere aldetik, Bizkaiko Foru Aldundiak agiri hau izapidetzeko duen eskumena behar bezala justifikatuta dago, baita Estatuko Abokatutza Nagusiaren txostenean. Txosten hori III. eranskin gisa jaso dugu.

Aurrekoarekin bat etorriz, Bilboko Portuko Agintaritzaren jarrera bakar posiblea hau da: ezestea Getxoko Kirol Portuko portua-hiria interakzioko erabilera-gunean hotel bat ezartzeko ekimena baztertzea eta BPAZPBren aldaketa puntuala artxibatzea edo agiria berriro idaztea edo tramitazioa berriro hastea xede duten alegazio guztiak. Proposamen horrek nagusiki 5., 6., 7. eta 8. alegazioei eragiten die.

Hala eta guztiz ere, jaso ditugun alegazio ugarik agerikoa dute ezinegona dagoela etorkizuneko hotelak paisaian sor lezakeen inpaktuaren inguruan eta beste erakunde eta partikular batzuek ere horrelako alegazioak egin dituzte, eta espediente hau izapidetzean egindako ingurumen-txostenean ere aipatzen dira antzekoak. Horrenbestez, Bilboko Portuko Agintaritzak ohar horiek guztiak kontuan hartuko ditu.

Horren ondorioz, hasiera batean etorkizuneko hotelerako ezarri zen gehieneko altueraren inguruan hausnartu da berriro ere, modu horretan, hotelaren bideragarritasun ekonomikoa bateragarria izan dadin inguruarekiko integrazio hobe batekin. Horretarako, hotel-jarduera izango duen etorkizuneko eraikinaren altuerak inguruko eraikin esanguratsuenen altuerarekin izango lukeen lotura aztertu da. Analisi hori txosten honen II. eranskin gisa atxiki den planoan laburbildu da.

Hausnarketa horrekin partzialki onetsi dira zenbait alegazio, zehazki, diotenak bereziki kezkatuta daudela etorkizuneko hotelaren inpaktu bisualarekin (1. eta 3. alegazioak). Hala, proposamen horien ikuspegi orokorra onartu da, baina ez hitzez hitz.

Etorkizuneko hotelaren gehieneko altura murrizteko esfortzua eginez, irizpide hau ezarri dugu: beheko solairua +3 profila bermatzea eta hori 16 m-ko gehieneko altuerarekin lortzen da. Profil eta altuera txikiago batekin ekimena ez litzateke ekonomikoki bideragarria izango eta praktikoki ezinezkoa litzakete noizbait egin ahal izatea. Horrek esan nahi du proposatutako eraikin berriaren altuera Arriluzeko naufragoen etxeko dorrearen azpitik geratuko litzatekeela. Izan ere, bat egingo luke dorrearen goiko terrazarekin, Ereaga hondartzaren ondoan dagoen Tamarises hotelaren azpitik, eta

Cód. Validación: 4GJF63YES42WPXC2GC96LE32J
Verificación: https://sedebilbaoport.gob.es/
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 37 de 53

gutxi gorabehera bat egingo luke Getxoko kirol-portuko gurutzaontzien terminala dagoen Olatua eraikinaren gailurrarekin.

Modu horretan, etorkizuneko hotelerako proposatutako 16 m-ko gehieneko altuera bat dator, baita ere, Getxoko Kirol Portuaren barneko portu-merkataritza erabilera-guneko eraikinak ordezkatuz gero ezarritako gehieneko altuerarekin; alderdi hori ez du alegatzaile batek ere zalantzan jarri ezta alegatu espedientea izapidetu den bitartean. Aurreko guztia dela-eta, praktikan, jada ez da beharrezkoa hotel berri posiblerako altuera espezifiko bat ezartzea, altuerak bete egingo lukeelako orokorrean portu-merkataritza erabilera-gunerako ezarritako gehieneko altuera eta xedapen hori portua-hiria integrazioko erabilera-gunera zabalduko litzateke.

Ondorioz, **honela idatzita geratuko litzateke “Erabilera-kalifikazioko gune bakoitzerako arau bereziak”** hirugarren tituluko **“*Portua-hiria interakzioa* erabilera-gunerako arau bereziak” 20. artikuluaren 3. apartatua:** “3.- Eraikuntza-baldintzak:

